

## Herririk Herri

Iurretako emakume dantzariak Urrijena jaiari parte hartuko dute lehenengoz >4



## Txakurrentzako gune berdeak eskatu dituzte

Ezohiko elkarretaratzean, txakurrez bete zen udaletxe aurreko plaza joan zen martitzenean. Txakurren jabeek deitutako mobilizazioaren helburua udalari txakurrentzako berdeguneak eskatzea izan da. Txakurrek solte ibiltzeko leku apropos baten beharra dutela aldarrikatu dute jabeek. >3



## Frackingerako baimenak eskatuta daude, Durangaldea ustiatzen hasteko >2

Frackingaren kontrako plataformak sinadurak batzeariekindiogasaateratzekoteknikahauEAEndebekatzea eskatzeko. Diotenez, "Durangaldea frackingaren mehatxupean dago". Eskualdean hiru ustiapen baimen eskatu dituzte. Saia eremua Zornotzan dago; Lore atala, Zornotzan, Iurretan, Durangon, Izurtzan, Mañarian, Garain, Abadiñon, Atxondon eta Berrizen; eta Sustrai eremuak Atxondo, Berriz, Mallabia, Zaldibar eta Elorrio hartzen ditu. Baimen bat emanda dago, eta beste biak eskatuta daude.



# ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Eitua industriagunea, 71C  
48240 BERRIZ (Bizkaia)  
946 824 550 · alkimax@alkimax.net  
www.alkimax.net



ADAR-BIRRINTZAILEA



ZULAGAILUA



ENBORRAK ZATITZEKO MAKINA



MOTOZERRA



GASOLINAZKO MOTORDUN AITZURRA

### Durango > 3

Fumbarri galdategiko langileen %10 silikosiak jota daudela salatu du LAB sindikatuak

### Garai > 7

Landare Azokaren bigarren edizioa antolatu dute domekarako

### Elorrio > 8

Turismo bulegoa zabaldu dute udarako Berrio-Otxoa kalean

### Zornotza > 6

Txakolin Eguna ospatuko dute zapatuan, Luis Urrengoetxean



# Herririk herri

> DURANGALDEA

## “Durangalde osoa dago frackingaren mehatxupean”

Frackingaren kontrako plataformak sinadurak batuko ditu, gasa ateratzeko teknika debekatzeko

> MARKEL ONAINDIA

Fracking Ez Durangaldea plataformak prentsaurrekoa eman zuen martitzenean, sinadurak batzeko kanpainaren berri emateko. Lurpeko gasa haustura hidraulikoaren bidez ateratzeko teknika da frackinga, eta hainbat enpresa ustiapenerako baimenak eskatzen hasi dira EAEn. Plataformako kideek ohartarazi dutenez, Durangaldean ere bai: “Durangalde osoa dago frackingaren mehatxupean”. Teknika horrek ingurumenean eta pertsonen osasunean eragin kaltegarria eduki dezakeela diote. Berriro ere aurrez aurre daude eragin ekologikoa eta baliabide ekonomikoa.

Nazioartean eztabaida sortu duen teknika da frackinga. Lurralde batzuetan debekatu egin dute: Frantzia, Herbehereetan, Bulgarian, Katalunian eta Kantabriar, adibidez. Nafarroan

bertan ere debekatu dute. Baina Eusko Legebiltzarrak ez du gauza bera egin. Horregatik, teknika galaraztea helburu, frackingaren kontrako plataformak herri ekimen legegile bat egin gura dute. Tramitaziorako lehengo baldintza 30.000 sinadura lortzea da, eta datozen hilabeteetan herririk herri hasiko dira batzen. Hasteko, bihar, Durangoko Andra Marin ipiniko dute mahaia 12:00etatik 14:30era. Domekan Garain egongo dira Landare Azokaren harira, eta Zaldibarko gaztetxeko truke azokan ere sinatu ahal izango da.

**Hiru ustiapen eremu**

Durangaldea osorik da ustiatzeko baliagarria, eta hiru ustiapen eremuren arabera banatuta dago. Saia eremua Zornotzan dago; Lore atala Zornotzan, Iurretan, Durangon, Izurtzan, Mañarian, Garain, Abadiñon, Atxondon

Casanova idazleak egingo dieten galderei erantzunda: hiruren arteko solasaldia izango da.

EH Bilduren iritziz, hauteskundeak testuinguru latzean datoz: “Zerbitzu publikoak murrizten eta eskubide sozialak deuseztatzen ari dira etengabe; horren ondorioz, milioika pertsona langabezia, etxe desjabetzeak, ezegonkortasuna, pobrezia eta bazterketa soziala sufritzen ari dira”. Horren aurrean, “herrien autodeterminazio eskubidearen defentsa argia egin eta Europar Batasuneko eredu sozioekonomikoa aldatzeko ardura” hartuko duela dio.



Frackingaren kontrako mugimenduko kideak, Pinondon, prentsaurrekoan.

eta Berrizen; eta Sustrai eremua Atxondon, Berrizen, Mallabian, Zaldibarren eta Elorrion. Saia atalean ustiatzeko baimena

“Baimenak sinatzea bakarrik falta da, gure ingurua gasa ustiatzeko putzuz betetzeko”

eman du dagoeneko Jaurlaritzak, eta beste bietarako ustiapen baimenak eskatuta daude. “Baimenok sinatzea bakarrik

falta da, gure ingurua gasa ustiatzeko putzuz betetzeko”. Frackingaren aurkariak azaldu dutenez, Bernagoitian egin dituzte ustiatzen hasi aurreko proba sismikoak, lurpean zer dagoen aztertuz.

**Teknika eta arriskuak**

Teknika berria eta ezohikoa da frackinga. Lurpean sakonera handian dauden arroketan pilotutako gasa ateratzen da. Horretarako, lurrikara txikiak sortzen dira nahita, eta ura presio handiz sartzen da gasa gorantz azaleratzeko. Kritikoek ustez,

hainbat dira arriskuak. Besteak beste, akuiferoak suntsitzea, ur edangarria kutsatzea eta gasa askatuta atmosfera kaltetzea.

Plataforma duela urtebete inguru sortu zuten Durangaldean. Sinadurak batzeko ekimenaz gainera, frackingaren kontrako sentsibilizazio kanpaina garatuko dute hurrengo hiletan. Herri-tarrak informatu gura dituzte, eta naturagaz lotura daukaten elkarteekin ere hartu-emanak landuko dituzte. Gainera, energia berriztagarrien alde egin dute, eredu energetikoa aldatzea beharrezko ikusten dituzte-eta.

## Josu Juaristi EH Bilduko hautagaiagaz solasaldia

> M.O.

Datorren martitzenerako solasaldia antolatuta du EH Bildu koalizioak Elorrioko Arriolan, 19:00etan. Maiatzaren 25ean egingo dira Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak, eta Josu Juaristi da EH Bilduko hautagaia. Ideiak eta egitasmoak azalduko ditu, Miren Amuriza bertsolariak eta Iker

> IZURTZA

## EAJk dio udaleko gaien berri prentsaren bidez izaten duela

> JONE GUENETXEA

Izurtzako EAJko zinegotziek prentsa oharrean jakinarazi dutenez, Izurtzako Bilduko gobernu taldeak prentsaren bidez informatzen ditu. Adierazi dute apirilaren 7an oraindik ez zekitelako ezer udal txekak herrian

garatuko dituen etxebizitza sozialaren proiektuaren, eta horiek izango dituzten estatutuaren inguruan. “Tristuraz ikusten dugu agertzen diren gaiak hirigintza batzordeetan landu ez direlako”, gaineratu dute. Era berean, udalak zazpi garaje eta pisu bat

erosiko dituela azaldu du EAJk. “Udaltxearen erabaki bat baldin bada, gainontzeko alderdi politikoei informatu behar zaie, komunikabideetan atera baino lehen”.

Luis José Ballarin alkateak kritika horren aurrean adierazi duenez, horrelako polemikek ez dute zentzurik. Alkateak gaineratu du Oskar Zarrabeitia EAJko zinegotziari hurrengo egunean azaldu ziola gaia. Bilduk ere EAJk publiko egindako albiste batzuk prentsaren bidez ezagutu dituela dio.

Laguntzaileak:

**BFA DFB** Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-lurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa:  
946 232 523  
Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2014ko apirilaren 11a,  
12. urtea - 541. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea.

**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.

**Administrazioa:** Miren Abasolo eta Nagore Aranburu.

**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Joseba Derteano.

**Markel Onaindia,** Amaia Ugalde eta Maialen Zuazubiskar.

**Maketazioa:** Eider Alberdi.

**Zuzentzailea:**  
Jon Ander Urkiaga.

**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes.



**> DURANGO**

# Udaletxe aurreko plaza bete dute, txakurrentzako berdegune bat eskatzeko

Txakurrak solte ibiltzeko leku bat eskatu dute, edo bestela parkeren batean ordutegi bat ezarri dezatela; dozenaka lagunek egin dute aldarrikapena

**> MARKEL ONAINDIA**

Protesta deigarria egin zuten martitzenean Durangoko udaletxearen aurrean. Dozenaka lagun txakur eta guzti agertu ziren, irudi berezia sortuta. Mobilizazio isila izan zen, baina txakurren zaunkek zaratatsu bihurtu zuten. Txakurren jabe batzuek egindako deiak arrakasta eduki zuen. Legea betetzeko eskatu zioten udalari: txakurrak solte ibiltzeko berdegune bat edo ordutegi bat ezartzea.

Eusko Jaurlaritzaren lege batek jasotzen du txakurrek solte ibiltzeko aukera eduki behar dutela

Euren ustez, zentzuzko eskaerak dira plazaratu dituztenak. Txakurra lotuta eroan behar

dute beti kaletik, eta animaliek solte ibiltzeko lekuren bat behar dutela azaldu dute. Horregatik, berdegune bat egokitzea eskatu dute, parke edo lorategi batean. Protestan parte hartu zutenetako bat da Natalia Zuazua, eta esan du badakitela Durangon ez dagoela parke askorik. Ondorioz, bigarren aukera lez ordutegi bat ezartzea proposatu dute. "Ordutegi bat goizean eta arratsaldean, txakurrak soltatu ahal izateko eta apur bat eurenkin gozatu ahal izateko. Durangon badaude ordu askotan inor egoten ez den parkeak".

Eusko Jaurlaritzaren lege batek ere jasotzen du txakurrek aukera hori eduki behar dutela, eta udalek ahalegina egin behar dutela hori betetzeko. Herritar horien ustez, horrelako neurri batek txakurrak dauzkatenen eta ez dauzkatenen arteko elkarbizitza hobetuko luke.

**Zentzuz jokatzeko**

Protesta egin dutenen mugimendua era naturalean sortutakoa dela azaldu du Zuazua. Landakoko berdegune batean elkartzen diren herritar batzuen ekimenez sortutakoa da, eta denboran indarra hartzen joandakoa. Azaldu du udalagaz tratuan ibili izan direla duela hiru hilabetetik: "Uste dut zentzuz jokatzeko gabiltzala, eta ez gabiltzala ezer txarrik egiten". Baina konponbiderik ez dute jaso, eta, gainera, egoerak txarrera egin ei du. Antza denez, udaltzainak gainean izaten dituzte, eta jarraituak eta mehatxatuak sentitzen dira. Isunen beldur dira.

Irtenbide bat gura dute, eta protestaren ostean udalak jarriko aldatuko duen esperantza daukate. Momentuz PPK agertu die babes publikoki, eta EAJri eskatu dio "konponbide erraza daukan arazo bat ez luzatzeko".

**> M.O.**

EUDELek sustatuta indarkeria matxistaren aurrean zelan komunikatu aztergai izan zuten atzo 35 bat udal ordezkari, Durangon. Indarkeria kasu bat gertatzean, biktimagaz eta prentzagaz hartu-eman eduki behar izaten dute, eta gai delikatu izanda, sarritan ez dira eroso sentitzen. Lau oinarri zeuzkan tailerrak: zer mezu landu, zelako adierazpenak egin, zelako tratua eduki biktimagaz eta emakume elkarteekin izan beharreko hartu-eman. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek parte hartu zuen tailerrean.

## Indarkeria matxistaren aurrean komunikatzen

EUDEL-en tailerrean 35 ordezkari egon dira



Tailerreko partaideak, Pinondo Etxean.

## Platerueneko gogoeta fasean, kudeaketaz jardungo dute

**> M.O.**

Plateruena Kafe Antzokiaren gogoeta prozesua aurrera doa. Hamar urte bete dira Berbarok kultur gune herritarra zabaldu zutenetik, eta proiektua eraberritzeko beharra ikusi dute arduradunek. Martxoan egin zituzten Zilarberritzen izeneko prozesuaren lehenengo tailerrak, kultur sarea gaitzat hartuta. Apirilean kudeaketa izango da gaia; hau da, Plateruena zelan gestionatu aztertuko dute.

Martxoko tailerrean ehun lagun inguruk parte hartu zuten guztira. Esaterako, herritar eta elkarteekin egindako eztabaidak, eta emakume musikarien inguruko Emarock erakusketak eta dokumentalak osatu zituzten tailerrak. Izan ere, sareaz gainera, emakumeen partaidetza landu dute zeharkako gai lez.

Bihar goizeko 10:00etan hasiko da Plateruenean bertan, eta era parte-hartzailean kudeaketa ereduaren inguruan eztabaidatzea izango da helburu. EHUko Parte Hartuz graduondoko kideek dinamizatuko dituzte eztabaidak.

## Fumbarriko langileen %10ek silikosisa dutela salatu du LABek

**> JONE GUENETXEA**

LAB sindikatuko Durangaldeko ehun delegatu inguruk Fundiciones Fumbarri SA enpresaren aurrean elkarretaratzea egin zuten asteazken goizean. Fumbarri: Peligro silicosis. Gure osasunaren alde lelopean bildu ziren Durangoko galdategiaren kanpoan.

LABek salatu duenez, galdategi horretan langileen %10 silikosiak jota dago gaixo. Silikosis silize hautsaren eraginpean agertzen dela, eta arnasketa iraunkorra sortzen duen lan gaitasuna dela gaineratu dute.

Enpresaren jarrera "arduragabea, pasiboa eta langileen osasunerako eskubideekiko mespretxagarria" dela kritikatu dute sindikatuko ordezkariak; "bai silikosisa dutenekin, baita ez dutenekin ere". Egoera honen aurrean, enpresako zuzendaritzaren jarrera gogor kritikatu du LAB sindikatuak: "Arazoari heldu baino produktibitatea lehenetsi eta enpresaren irabazi ekonomikoak gainetik jartzen ditu".

Gure klinikan  
**HORTZ SCANNER-a**  
darabilgu Diagnostiko Aurreratua egiteko

**80€**

Bigarren planifikazioa zure inplanteetarako  
**Sistema berria gure eskualdean**

**15% -RAINOKO DESKONTUAK**  
**WEB GUNEKO TARIFETAN**

Kontsultatu gure tarifak hemen:  
[www.clinicaekoden.com](http://www.clinicaekoden.com)

HORTZ KLINIKA  
CLINICA DENTAL  
**Ekoden**

R.P.S. 44 / 14

**Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22**



**> IURRETA**

# Emakume dantzariak ere parte hartuko dute Urrijenan

“Iurretako dantzari guztien jaia” antolatzen dabil Urrijenako batzordea; herriko emakume dantzarien artxiboa sortzen hasi dira, eta laguntzeko deia egin dute



Urrijena antolatzeko talde berria osatu dute, eta logotipo berria ere sortu dute jairako.

**> AMAIA UGALDE**

Urriaren 12an ospatuko dute aurten dantzarien Urrijena jaia. 25 urte beteteko dira lehenengo Urrijena ospatu zutenetik, eta ordutik hona, bost urterik behin, gizon dantzarien jaia izan da. Aurten hori aldatu egingo da, eta emakumeek ere parte hartuko dute jaian.

Urrijena prestatzen talde berri bat dago, eta aldaketa “modu oso naturalean” egin dela azaldu dute: “Azken sanmigeletan neskek erabaki zuten mutilek dantza egiten zuten saio guztie-

tan parte hartzea. Hori horrela, ikusi dugu momentu ona dela Urrijena benetakoa Iurretako dantzari denen jaia izateko”.

Aldaketa horrekin batera, emakume dantzarien artxiboa egiten hasi dira. Arinago mutil dantzariekin egin zen bezala, Iurretan inoiz dantza egin duten emakumeen izenak batzen dabilta, bide batez, jaian parte hartzera gonbidatzeko. Urrijenako batzordeagaz kontaktuan ipintzeko 688 813 599 telefono zenbakia eta [urrijena@gmail.com](mailto:urrijena@gmail.com) helbidea eman dituzte.

Urrijenaren irudian ere aldaketak egin dituzte; lehenago mutil dantzari bat zen logotipo protagonista. Orain, irudia Iurretako bandera eta dantzarien betibizi loreagaz osatuta dago; Eñaut Aiarzaguenak diseinatu du.

**Herri bazkaria**

Urriaren 12ko jaiari dagokionez, oraindik egitaraua definitzen dabilta, baina aurreratu dutenez, jaia herrira zabaldu eta herri bazkari bat egiteko asmoa daukate, erromeria eta guzti.

## Bost urteko epea Fundiguleko lehengo lursailean etxeak eraikitzeke

**> A.U.**

Lurzoruko kutsadura kendu eta eraikuntza lanak egiteko bost urte izango dituzte Fundiguel galdategiaren lehengo lurretan. Bertan, 84 etxebizitza eraikitzeke egitasmoa dago. Gailur Alde enpresa etxegilea eta Belacortu familia dira lurren jabeak. Hitzarmena sinatu dute, eta Iurretako Udalari lurren %15 eta 152.607 euro eman die. Udalak, orain bereak diren lurretan hamar etxebizitza eraikitzeke lekua izango luke, baina oraindik ez du erabaki lur horiek zertarako erabiliko dituen.

**Paduretako etxeen lanak**

Maspeko aparkalekuko etxebizitzaren lanei dagokienez, Ura agentziaren baimenaren zain daude Iurretako Udaleko arduradunak. Alkateak azaldu duenez, udarako baimen horren berri izatea espero du.

**> MALLABIA**

## San Jurki jaiak Berano Txiki auzoan, apirilaren 26an eta 27an

**> JONE GUENETXEA**

Berano Txiki auzoko bizilagunek San Jurki jaiak ospatuko dituzte. Apirilaren 26an ekingo diote egitarauari, arratsaldeko 17:00etan, Santuei kontuak esanda eta santuak jantzita. 19:00etan txopoa altxatu ondoren, afaritarako elkartuko dira. Domekan, 11:00etan, meza izango dute, eta, jarraian, Mallabiko Gazte Alai dantza taldeak emanaldia eskainiko du. Gero, Beñat Ugartetxea eta Nerea Elustondo bertsoan arituko dira. Gai-jartzailea Unai Unanue izango da. Umeentzako jolasekin amaituko dute goiza, eta baita arratsaldea hasi ere. 18:00etan Zelaigaz eta Bihurri-gaz herri kirol emanaldia izango da ikusgai. 19:00etan, berriz, Agarrera ostera egingo dute.

**Asto proben irabazleak**

Apirilaren 6an jokaturako Bizkaiko Asto Proba Txapelketa Rafael Alegriak irabazi zuen. Bere ostean, Egia, Iker Galarreta, Ugalde, Maiora eta Satxibar gelditu ziren, hurrenez hurren.

**> MAÑARIA**

## Errose Bustintza kultur etxeaz inkesta, zabaldu eta urtebetera

**> MARKEL ONANDIA**

Urtebete pasa da Mañariko Errose Bustintza kultur etxea inauguratu zutenetik. Urtemuga aprobetxatuta, eraikin horretan ematen diren zerbitzuen inguruko iritzia jakin gura dute udal arduradunek. Horretarako, inkesta batzuk betetzea proposatu diete erabiltzaileei. Kultur etxe-ko sarreran egongo dira eskura orriak.

Urtemuga aprobetxatuta, eraikin horretan ematen diren zerbitzuen inguruko iritzia jakin gura dute

2013ko apirilaren 26an egin zuten inaugurazio ekitaldian 60 bat herritar batu ziren. Espazio horretan dago liburutegi berria, baita KZgunea ere. Goiko solairuan erakusketentzako lekua eta jubilatuen txokoa daude. Udalak 2009an erosi zuen Errekondo eraikina, eta Errose Bustintza idazle ezagunaren izenagaz bataiatu zuten kultur etxea.

**> ZALDIBAR**

## Euskararen Aholku Batzordea lehenengoz batu zen martitzenean

**> ITSASO ESTEBAN**

Herriko hainbat elkareren ordezkariak eta norbanakoak batu ziren, martitzenean, Zaldibarko Euskararen Aholku Batzordearen lehenengo deialdira. Hogei lagun inguru elkartu ziren batzarrean. Batzordearen funtzionamendua finkatu zuten, besteak beste, eta urtean hiru-lau batzar egingo dituztela zehaztu zuten. Taldea martxan ipintzeko abiapuntu gisa, udalak euskararen erabilera bultzatzeko daukan baliabideak zeintzuk diren azaldu zieten udal arduradunek batzarrean parte hartu zutenei; zer aurrekontu eta giza baliabide dauden proiektuak aurrera ateratzeko, esaterako, eta zer arautzen duten euskararen erabilera indarra egiteko udalak onartu dituen planek.

Datozen bi urteetarako batzordeko partaide izango direnen behin betiko izendapenak egingo dituzte hurrengo asteetan elkarrekin, eta hilabete barru elkartuko da berriro Euskararen Aholku Batzordea.

**> BERRIZ**

## Maiatzeko zubian Donejakue bidera irteera

**> A.U.**

Apirilaren 30etik maiatzaren 4ra Donejakue bidea egiteko irteera antolatu dute Berrizen. Ponferradatik (Leon, Espainia) Santiagorako ibilbidea egitea da asmoa. Autobusa antolatu du Berrizko Udalak, eta gura duenak apirilaren 15era arte eman dezake izena Berrizburu kiroldegian.

Irteerara joan gura duenak apirilaren 15era arte eman dezake izena Berrizburu kiroldegian

Apirilaren 30ean arratsaldean, 18:00etan irtengo dira Berriztik Ponferradarantz. BBK aurrean ipini dute autobusa hartzeko hitzordua. Maiatzaren 4an, gauean bueltatuko dira Berrizera, 22:30 inguruan. Irteerara joan gura dutenek 174 euro ordaindu beharko dituzte, eta prezioaren barnean daude bidaiko joan-etorria, ostatua eta eguneroko armosuak.



**Durangaldeko Behargintza**  
Eskualdeko Garapen Agentzia  
Agencia Comarcal de Desarrollo



**Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa**  
Mancomunidad de la Merindad de Durango



**HOBETUZ**  
Fondazioa Vasco garaileko Romazio Profesional Garbia  
Luzapen Prebentibonaren Eskualdeko Fundazioa



**Lanbide**  
Euskal Enplegu Zerbitzua



**EUSKO JAZKILARITZA GOBIERNO VASCO**  
ERREKONDO ETXERAKO ENPLEGU ZERBITZUA

## ARDO-DASTAKETA IKASTAROA

### Ostalaritza arloko langileentzako eta langabetuentzako

**Data:** 2014ko maiatzaren 5etik 19ra arte  
**Ordu kopurua:** 21  
**Ordutegia:** 16:00etatik 19:00etara asteleheneetik eguaztenera  
**Tokia:** Durangaldeko Behargintza  
**Izena emateko epea:** 2014ko apirilaren 23ra arte

Plaza kopurua dela eta, lanean daudenen parte-hartzea, eskaera orriaren dataren arabera erabakiko da.



Interesa baduzu, deitu hurrengo telefonora: **946 232 522**  
**Durangaldeko Behargintza - Laubideta, 6 - Durango**  
[www.mdurango.org](http://www.mdurango.org)





# GREMIOEN GIDA

**DEKORAZIOA**

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garain A - Berriz.  
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421  
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com

**ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA**

ARGIZTATZE TEKNIKAK  
**MARKIEGI**

Plateruen plaza 4, behea  
48200 Durango  
Tel.: 94 620 35 20  
94 620 21 76  
Faxa: 94 681 56 95  
markiegi@markiegi.com

**ITURGINTZA**

Solaguren kalea, 3 - ABADIÑO  
Tel.: 946 814 474  
Faxa: 946 215 374  
urtiaga.sil@terra.es

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

**GARBIKETA**

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

**LOREZAINNTZA**

*Jardines Patxi Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086  
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com

**K21**

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak zure zerbitzura!**



**> ZORNOTZA****David Latxaga ez da alkategai aurkeztuko udal hauteskundeetara****> J.D.**

Zornotzako alkate David Latxagak (EAJ) iragarri du ez dela 2015eko udal hauteskundeetara alkategai aurkeztuko. Legegintzaldi hau amaitu egingo duela argitu du. Hori dela-eta, Zornotzako EAJk alkategaia bilatzeko prozesua hasi du. Maiatzaren 8ko batzarrean hartuko dute azken erabakia.

David Latxagak hirugarren legegintzaldia du alkate Zornotzan. Erabakia “aspalditik datorren gogoeta” baten ondorio dela adierazi du. Erabaki “elkarbanatua, baina propioa, libre eta boluntarioa” izan dela azaldu du eta “une egokia” dela erreleboa emateko: “Barne egoera egonkorra da, batasuna dago eta baldintza horietan erreleboa da erreleboa ematea”.

**Txakolin Eguna ospatuko dute zapatuan**

Jan-edanagaz batera, musika, umeentzako jolasak eta herri kirolak egongo dira Luis Urrengoetxean

**> JOSEBA DERTEANO**

Aurten, hirugarren bider Txakolin Eguna antolatuko du zapatuan Luis Urrengoetxeako tabernarien elkarteak. Aurreko aldiak harrera beroak animatu ditu ekimena antolatzera.

Kale horretako 11 tabernetan garatuko dute ekimena: Tomasa, Pike Park, Vibe, Ur-tza, Guria, Belaxikieta, Auzokoa, Leku Berri, Far-Far, Harrison eta Vintage tabernetan. Edateko kopa erosten duenak -2 euro balioko ditu- euro batean dastatu ahal izango du Gorka Izagirre txakolina, ohi baino 50 zentimo merkeago.

Tabernak irekitzen direnetik 02:30ean itxi arte egongo da horretarako aukera. Era berean, 13:00etatik 15:00etara pintxopote ekimena egingo dute zapatuan: edariak erosiz gero, pintxoak dohainik izango dira.

**Oxabi taldearen musika**

Txakolin Eguna girotzeko hainbat ekintza prestatu dituzte. Goizean trikitilariak, txistulariak, umeentzako jolasak eta herri kirol erakustaldiak egongo dira. Iluntzean, aldiz, Galdakaoko Oxabi erromeria taldea kalean zehar ibiliko da musikagaz giroa alaitzen.



Luis Urrengoetxea kalean ospatuko dute Txakolin Eguna.

**> OTXANDIO****Gure Esku Dago taldea astelehenero batzen da**

Zapatuan giza katerako metroak salduko dituzte

**> J.D.**

Gure Esku Dago erabakitze eskubidearen aldeko dinamika da. Ekainaren 8an Durango eta Iruñea giza kate baten bidez lotu gura ditu. Otxandio lehenero kilometro biak kudeatuko ditu Durangogaz. Dinamika martxan da

herrian, eta astelehenero batzen dira, 20:30ean, gaztetxean. Herriarrei batzarretara joateko gonbita egin diete. Zapatuan, 13:00etan, giza katerako metroak eta kamisetak saldu, eskuorriak banatu eta bideo bat egiteko irudiak grabatuko dituzte plazan.



Askotariko ideologiak batu gura dituzte erabakitze eskubidearen aitzakian.

**Musika, bazkaria eta ume jolasak Udaberri Jaian****> J.D.**

Zapatuan, Udaberri jaia ospatuko dute Otxandion goizetik gaue-ra luzatuko den egitarauagaz. 11:00etan, umeentzako jolasak izango dituzte plazan: besteak beste, zirku tailerra, puzgarriak, aurpegi margoketa, eskalada tailerra eta motor lasterketak egongo dira aukeran. Eguerdiko 13:30etik aurrera triki-poteari ekingo diote, eta, 15:00etan, elkartasun bazkarian batuko dira Mainondoko kiroldegian.

Bazkalostetik aurrera musika izango da nagusi arratsaldean. 19:00etan Izargi taldeak dantzarako gonbita egingo du, baina ez da talde horren saio bakarria izango; izan ere, Mandoilek taldeak 23:00etatik aurrera emango duen kontzertuaren ostean, Izargik beste dantzaldi bat eskainiko du.

**Hizkuntza politiketan “esku hartzeak” salatu dituzte**

Kontseiluaren elkarretaratze bat Otxandion izan da

**> J.D.**

*Estatuen esku-hartzea gelditu* lelopean elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Otxandion, eta Euskal Herriko beste hamaika herritan. Kontseiluak deituta, udaletako hizkuntza irizpideen kontra Carlos Urkijo EAEn Espainiako Gobernuak

duen ordezkariak egindako salaketak gaitzetsi dituzte: “Gure etxean zer eta nola egin behar dugun ez digute kanpotik esan behar”. Durangaldean, Otxandio, Zaldibarko, Mallabiko, Mañariko eta Izurtzako udalek jaso dituzte Carlos Urkijoren errekerimenduak.



Eskuak margotuta eta gelditzeko keinua eginda egin zuten elkarretaratzea.

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK  
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - lurreta  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
posta elektronikoa: [jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografía

946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA



# OTXANDIXOKO JAIA

## APIRILAK 12



11:00 UMEENTZAKO JOLASAK (plazan)  
(zirko tailera, puzgarriak, aurpegi margoketa, eskalada tailerra, slackline-a, jolasak, motor lasterketa...)

13:30 TRIKI-POTEOA

15:00 ELKARTASUN BAZKARIA  
(mainondoko polikiroldegixen)

19:00 DANTZALDIA **IZARGI**  
*taldearekin*

23:00 KONTZERTUAK



Dantzaldia  
**+** **IZARGI**  
*taldearekin*



Udaberrian, Euskal Preso eta Iheslariak etxera!!



**ELORRIO**

# Turismo bulegoa zabaldu dute udarako Berrio-Otxoa kalean

Eguaztenean egin zuten inaugurazioa, eta astelehenean egongo da martxan



Ana Otadui alkatea, bulegoaren inaugurazio ekitaldian.

**> MARKEL ONAINDIA**

Elorriora datozen turistek beste erreferentzia gune bat edukiko dute astelehenetik aurrera: turismo bulegoa. Berrio-Otxoa kalean egokitu du udalak, eta udako sasoiaren egongo da zabalik, Errebonbillo Egunaren ostera arte. Eguaztenean egin zuten inaugurazioa, eta egun osoan

herritarrek ikusteko aukera edukiko zuten.

Ana Otadui alkatea (EAJ) azaldu zuen Durangaldeko Enplegu Planari esker pertsona bat kontratatatu dutela sei hilerako, eta gastu hori ez du udalak ordainduko. Errebonbilloen ostean, "ahal bada" proiektuagaz jarraitu gura dutela esan zuen

Otadui. Izan ere, turismoak aberastasuna ekarri dezakeela uste dute.

Aste Santuan emango ditu lehen pausoak bulegoak. Turistek herriari buruzko informazioa, audiogidak eta bisita gidatuak izango dituzte aukeran. Gainera, herriko ekoizleen produktuak erosi ahalko dituzte.

## Merkatua antolatuko dute Erreka kaleko jaien barruan

**> JONE GUENETXEA**

Astebururako egitarau oparogaz datoz Erreka kaleko jaiak. Gaur, DJ Zirkinen musikak giroa dituzte iluntzea eta gau partea. Era berean, munduko ipuin kontalariak Arriolan bilduko dira. Gauerdian, Summun Arten DJ & VJ Set arituko dira gaztetxean. Bihar, pilota partiduak, Luhartz, Skontra eta The Potes taldeak, eta Ateneoko Summun Art izango dira. Domekan, bigarren eskuko, artisautza eta Elorrioko baserritarren produktuen azoka izango da goizean. Arratsaldean, dantza emanaldia eskainiko dute plazan.

## Haur eskola berria edukiko dute Txintxirrin

Goiko aldeko eraikin aurrefabrikatua bota dute, eta espazio berria irailerako egongo da prest

**> M.O.**

Txintxirri ikastolan haur eskola berria egiteko obrak hasi dituzte. Goiko aldeko eraikin aurrefabrikatua bota dute, eta haurrentzako espazio berria irailerako egongo da prest. Ez dute edozelan garatuko; pedagogiaren zerbitzura antolatuko dutela esan dute, "pedagogia aktiboa" garatzeko. Izan ere, euren proiektua, umeari protagonismoa emanda garatzen dute batez ere. Beraz, euren premiei erantzuteko pentsatutako eraikina izango da.

Txintxirrikoek azaldu dute azken urteetan etengabea izan dela ikastetxearen hazkundea, eta espazio berrien hausnartari aspaldi ekin ziotela. "Etorkizuneko proiektuaren lehenengo fasea baino ez bada ere, ikastolarentzat urrats erraldoia da".

Eraikina bioeraikuntzaren arabera altxatuko dute. Filosofia horren barnean, adibidez, lurpeko perturbazioak ez egotea eta material naturalak erabiltzea daude. Modu horretan, haurrentzako "ingurune goxo eta osasungarria" sortu gura dute.

**ABADIÑO**

## Aldundiaren "kontrol falta" salatuko dute

**> AMAIA UGALDE**

EH Bildu koalizioak Bizkaiko Foru Aldundiaren "kontrol falta" salatu du Gerediaga-Elorrio errepideko eraikitze lanetako hormigoi fabrikaren auzian. Proiektuan ez dela porlan fabrika ageri azpimarratu du koalizioak. Hormigoi fabrikak lizentziarik ez duela, eta "diru publikoaz ordaintzen diren hainbat milioitako kontratuak esleitzen dituztenen partetik kontrol zorrotzagoa" behar dela nabarmendu du. Aitor Torre EH Bilduko batzarkidearen berbetan, "porlan fabrikak baimenik ez duela behar argudiatzeko ez dauka zentzurik, ezin delako lanen elementu lagungarritzat hartu". Antzeko kasuengatik Beasainen eta Zornotzan eraikitako porlan fabrika biren kontrako epaiak aipatu ditu.

## Euskal jantzien bilketa abiatu dute Boisera bidaltzeko

**> ITSASO ESTEBAN**

Boiseko (Idaho, AEB) ikastolara bidaltzeko bigarren eskuko euskal jantzi tradizionalak batzeko kanpaina abiatu dute Abadiñon. Bagoaz Bidaiak agentziaren Traña-Matienako egoitzan jasoko dituzte jendeak emandako jantziak, ondoren Boiseko ikastolara bidaltzeko.


Ander Cimas bidaia agentzia horretako arduradunak azaldu duenez, 30 jantzi bidali ahal izatea da martxan ipini duten ekimenaren helburua, Boiseko ikastolan euskal tradizioagaz lotuta antolatzen dituzten ekitaldietan baliatu ahal izateko. Momentuz sei jaso dituzte, eta batez ere umeentzako jantziak behar dituztela azaldu du.

Bagoaz Bidaiakeko arduradunak azaldu duenez, Boiseko ikastolan irakasle diharduen abadiñar batek eskatu zion jantziak batzeko kanpaina hau abiatzen laguntzea.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

IDOIA  
AGORRIA

PSE - EE



### Eskubideak, gero eta gutxiago eta ez guztiontzat

Aurreko hilean ume bat hil zen Trebiñun, eta gurasoek deitu arren, ambulanzia ez zen haraino joan. Horrek amorratzen jarri nau. Zergatik ez zen joan ambulanzia? Ez da aski Darponek esan zuena, "erabat alferrikakoa izango zela". Osasun sailburuak geroago eman zituen azalpenek askoz amorrutuan handiagoa eman zidaten: "kasu zehatz bat zela, oso zorigaitzokoa, gaixotasun arrunt bat larriki okertu zelako". Medikuari bota zion erru osoa, bere ustez ez zuelako gaixotasun arrunt horren larritasuna behar bezala balioetsi, eta zigor-espeditente bat zabalduko ziola agindu zuen.

Ez dakit zuek larrialdietako langileren bat ezagutzen duzuen, baina ziur nago bertan izan zaretela noiz edo behin. Kasu larriak artatu behar dituzte ia egunero, eta izugarriko erantzukizuna hartu behar dute beren gain. Zail egiten zait haien larruan jartzea.

Haiek ez dira kudeatzaileak, osasun-zerbitzuak dituen gastuak besterik ez ikusteko. Medikuari besterik ez dira; pertsonak aztertu eta artatu behar dituzte, eta erantzukizuna hartu behar dute beren gain, bulegoetan eroso eserita dauden horiek gainetik kendutako erantzukizun bera.

Durangaldean denbora luzea eman dugu larrialdi zerbitzuan falta den erizaina eta medikalizatutako ambulanzia eskatzen. Anbulanziarik hurbilena Gernikan dago. Oso urruti. Zalaparta handiz iragarri dute ambulanzia bat jarriko dutela Durangon, erizainarekin, baina medikurik gabe, horrek dakartzan arazoekin, eta egunez baino ez. Beren bulegoetan eroso eserita, ez dira ohartzen dauden benetako beharrez, eta, gainera, ergelak garela uste dute. Azken batean, larria den zerbait gertatuz gero, medikuari botako diote errua!

hitz

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

**Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:**

<p><b>HELDUENTZAT</b></p> <p><b>HAMAR</b> Andrej Longo</p>	<p><b>UME ETA GAZTEENTZAT</b></p> <p><b>GAUEKO SUKALDEAN</b> Maurice Sendak</p>	<p><b>MUSIKA</b></p> <p><b>TXIMELA KAPITAINAREN IZARRAK</b> Joseba Tapia</p>
--	---	--

## Goizane Azpiri Maurtua

Naturopata kolegiatua, 3515 zk.

**Eskuzko teknikan eta psikofisikoetan aditua**

Masaje deskontrakturantea  
Drainatze Linfatikoa  
Osteopatia  
Teknika kraneo-sakrala eta biszerala  
Estetika naturala: aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak

Itxerazko zerbitzua  
(aurreko hitzordua)

San Ignazio auzunea, 2 beheka - Durango • Tel.: 675 706 599



**> GARAI**

# Egun-pasarako eskaintza prestatu dute Landare Azokan

Landare Azokaren bigarren edizioa antolatu dute domekarako; 23 postu ipiniko dituzte herrigunean



laz arrakasta eduki zuen Landare Azokak.

**>MARKEL ONAINDIA**

“Garaira hurbilduko den jendeari gune aproposa prestatu diogu eguna igarotzeko”. Landare Azokaren bigarren edizioa antolatu dute domekarako udalak, Trumoitte kultur elkarteak eta Urkiola Landa Garapenak, eta berba horiekin egun-pasa egitera animatu dituzte herritarrek zein inguruetakoz biztanleak. 23 postu ipiniko dituzte herrigunean, eta konposta egiteko ikastaroak eskainiko dituzte. Bolatokian pintxoak salduko dituzte boluntarioek, eta musikagaz girotuko dute goiza.

Goizeko 10:00etatik 14:00etara bitartean zabalduko dute azoka. Landareen eta lorezaintzaren inguruko hogeitatu egongo dira ikusgai. Sasoiko loreak, kaktusak, bonsaiak, lore sikuak,

landare txikiak, lorezaintzarako lanabesak, baserriko tresnak eta produktu ekologikoak zein fitosanitarioak eskainiko dituzte, besteak beste. Ekoizle horiez gainera, Durangaldeko hiru nekazariek ere ipiniko dute postua gaztagaz, ogiagaz eta ardoagaz.

Bestalde, etxeko konpostajea zelan egiten den ikasteko bertaldian parte hartu ahalko dute bertaraten direnek, 11:00etan eta 12:30ean.

**lazkoa errepikatzer**

Iazko edizioak arrakasta handia eduki zuen, eta antolatzaileek esan dute hori errepikatzea gura dutela. “Giro jator eta herrikoian murgilduta, landare eta lorezaintzako herriko eta kanpoko zaleen topalekua” izatea da euren helburua.

**> ATXONDO**

## Egun-pasa Vianara joateko izen-ematea hasi dute jubilatuek

**> JOSEBA DERTEANO**

Atxondoko jubilatuen elkarteak Vianara (Nafarroa) egun-pasa antolatu du maiatzaren 17rako. Interesatuta daudenentzako izen-ematea hasi dute, eta maiatzaren 9ra arte egongo da horretarako aukera jubilatuen etxean. Bazkide direnentzako prezioa 25 euro da, eta bazkide ez direnentzako 30 euro.

Nafarroan cava ekoizten den bi herrietako bat da Viana, eta Mainegra bodega bisitatuko dute

Nafarroan cava ekoizten den bi herrietako bat da Viana; Mendabia da bestea. Egun-pasaren barruan cava ekoizten den Mainegra bodega bisitatuko dute goizean. Ondoren, Vianako hainbat gune turistiko bisitatuko dituzte. Lehenengo Santa Maria elizara joango dira; XIII. eta XIV. mendeen artean eraiki zuten eliza gotiko hori. 1931n monumentu historiko-artistiko izendatu zuten.

Aurreikusita dagoen beste bisita bat Balcon de Toro palaziora egingo dutena da. XVII. mendean eraikita, 2009an berriztu egin zuten, eta herriko eraikin baliosuenetakoa eta esanguratsuenetakoa da. Ondoren, herriko jatetxe batean bazkalduko dute, eta bazkalostean bingoan jokatzeke eta dantza egiteko aukera egongo da bertan.

**> DURANGALDEA ASTEON**

## Giza katerako metroa erosteko egun finkoak Berriz eta Abadiñon

**GURE ESKU DAGO >** Erabakitzeke eskubidearen aldeko giza katerako metroa erosteko toki eta egun finkoak ipini dituzte Abadiñon eta Berrizen. Abadiñon, barikuro (apirilaren 18an izan ezik) Errota kultur etxeko gela batean egongo dira eskuragarri, 19:00etatik 20:00etara. Berrizen Olakueta plazako 5. zenbakian egongo dira martitzen (11:00-13:00), barikua (19:00-21:00) eta domeketan (12:00-14:00).

## Herria elkarteak apirilaren 30era arte eman daiteke izena ume saharaiak etxean hartzeko

**UME SAHARAIK >** Aurten ere etorriko dira ume saharaiak Tindufeko kanpalekuetatik Durangaldera uda pasatzera. Durangon, Herria elkarteak deialdia egin du umeak etxean hartzeko, eta izen-ematea apirilaren 30a baino lehen egitea eskatu du, 655 711 100 telefonora deituta. Familiek udalaren laguntza edukiko dute umeen bidaia gastuak ordaintzeko. Ekain amaieran edo uztail hasieran etorriko dira umeak, hil bi pasatzera.

## Iurretatik Bartzelonara, ingurumenaren harira

**INGURUMENA >** *Planeta zaindu dezagun* lelopean, mundu mailako CONFINT ekimenean parte hartzen dabilta Iurretako Juan Orbiogoiatiako ikasleak. DBH 3ko ikasleek ingurumenari buruzko lanketa egin dute; uraren kutsadura murrizteko eta ingurumena zaintzeko hainbat ekintza egin dituzte. Bizkai mailako jardunaldian aurkeztu dute euren lana, eta Bartzelonan egingo den jardunaldira joateko txartela lortu dute.

## Zornotzako lonja batean 122 marihuana landare aurkitu dituzte

**ATXILOTU BAT >** Zornotzako San Antonio auzoko lonja batek su hartu zuen martitzen gauean, zirkuitulabur baten ondorioz. Suhiltzaileak bertaratu eta sua itzali ostean, ertzainek 122 marihuana landare eta horiek hazteko azpiegiturak aurkitu zituzten barruan. Ertzainek errentaria aurkitu eta atxilotu egin zuten, plantazioaren ustezko arduraduna izan daitekeelakoan. Substantzia estupefazianteen trafikoa egotzi diote.

**Iritzia****PNV, ZABORRA ETA BOSGARREN EDUKIONTZIA**

Zaborraren gaiari aspaldi dario hatsa. Betidanik errazena egin dugu, zabor poltsa bete etxean, eta kontainerrean eramanez: akabo arazoa. Baina ordua heldu da zaborraren arazoari irtenbidea emateko. Lehenengoz, derrigorrean egin behar duguna da gure kontsumoa gutxitzea eta zaborren kopurua jaitea. Behin zabor gutxiago sortuta, zabor hori birziklatzea bultzatu behar da. Eta zer egin gure zaborrarekin?

Aditu gehien arabera, gaur egun atez atekoa da (ikus Kataluniako edo Gipuzkoako kasuak) zaborra kudeatzeko sistemarik hoberena. Ikusten ari gara Usurbilen edo Hernanin, esaterako, birziklatze tasa %80ra eta %90era heltzen ari dela. Hala, materia organikoa konpostaje fabriketara bideratzen da, gero sortutako ongarria erabili ahal izateko, lurrari bueltatuz, naturaren zikloa itxita.

Eta atez ateko sistemarekin Zubietan eraiki nahi duten errauskailu kutsakorra eraikitzea saihestu dute.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta atez atekoa sistema hoberena den, bai Bizkaian, bai Zornotzan, bai Iurretan eta bai Abadiñon, PNV materia organikoa batzeko bosgarren edukiontzia (kontainer marroia) alde agertu da, eta horretarako 650.000 euroko aurrekontua dauka.

Bosgarren edukiontzia esker zabor organikoaren %4 konpostatzea espero du Bizkaiko Diputazioak, atez atekoarekin, berriz, %100 konpostatzen ari da Usurbilen.

Gipuzkoan, 2011ko datuen arabera [www.zerozabor.org](http://www.zerozabor.org), bosgarren edukiontziarekin biztanleko 17 kg materia organiko batu zen urte horretan. Atez atekoarekin, aldiz, biztanleko 87 kg batu zen.

Bukatzeko, atez atekoa jartzearen alde ez badaude, beste irtenbide bat daukagu, gure zaborra jatea; azken finean, Telepizzara edo Burger Kingera zaborra jatera joaten gara, eta ohituta egongo gara, dagoeneko.



**astekaria@anboto.org**  
astearte 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta  
• Izen-abizenak • telefona • helbidea  
• Nortasun Agiriaren zenbakia

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**  
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (farteak barne).



# Berbaz

Oihana Medina Alberdi | Aditze bitartekaritza eta aholkularitza juridikoa | Eibar, 1975



## “Elorrioko alargunen pentsioa, kasu gehienetan, 400-600 eurokoa da”

Elorrio eta Zornotza dira alargunen elkartea duten Durangaldeko herri bakarrak. Aditze aholkularitzako Oihane Medinak Elorrioko alargunen egoeraren azterketa egin du

### > JONE GUENETXEA

Zelan sortu da azterketa hau egiteko ideia?

Elorrioko berdintasun teknikaria eta Elorrioko alargunen elkartea batera ipini ziren gurekin kontaktuan. Inoiz ez da egin emakumezkoen alarguntasunari buruzko ikerketarik Elorrioren, eta ga-

rrantzitsua iruditzen zitzaien alargunei buruzko informazioa edukitzea, bai datuen aldetik, bai egoeraren aldetik.

**Zein da Elorrioko alargunen artean egin duzuen azterketaren helburua?**

Alde batetik, alargunen datu soziodemografikoak ezagutzeko izan da helburua.

Emakume kopurua, adina eta beste datu esanguratsu batzuk bildu ditugu. Beste alde batetik, alargunen egoera eta errealitatea ezagutu gura izan dugu hiru ikuspegitik: osasuna, ekonomia eta gizarte harremanak.

**Zer metodologia erabili duzue lan honetan?**

Batetik, Eustatek bidali dizkigun datuak erabili ditugu: 2006an Eustatek egindako Etxebizitza eta biztanleria inkestatik ateratako datuak; 2011ko erroldako datuak ere erabili ditugu. Eta, bestetik, Aditzetik egindako inkesta bat pasatu diegu Elorrioko 38 emakume alarguni.

**Zenbat alargunekin jarri zarete hartuemanetan?**

38 alargunek bete dute inkesta. Alargun guztien % 9k.

**Zer ikuspuntutan oinarritu zarete alargunen egoera aztertzeko?**

Alargunen bizi-kalitatean oinarritu dugu ikerketa guztia. Kontuan edukita osasun fisikoa eta psikologikoa, independentzia

maila, gizarte harremanak eta abar.

**Badago profil jakinik alargunen artean?**  
Bai. 65 urtetik gorakoa, emakumea eta osasuntsua. Etxebizitzaren jabea, nahiz eta askotan seme-alabekin partekatua, jaraunspena dela eta; diru sarrera bakarria alargunen pentsioa da, kasu gehienetan, 400-600 euro bitartekoa.

“

*Alargunen %24k aisialdirako zailtasunak ditu, gehienbat lagunak falta dituelako*

**Azterketaren arabera, zelako osasun arazoak dituzte alargunek?**

Osasun arazo gehienak hezurretako arazoak dira: artrosia, artritis, mokorraren higadura eta abar. Gainera, kontuan hartu behar da %11k depresioa duela adierazi duela.

**Etxebizitzaren inguruan nolako egoeran daude?**

Lehen komentatu dugun moduan, etxebizitzaren jabe dira kasu gehienetan. Etxebizitzaren horniduraz esan daiteke funtsezkoa daukatela: telefonoa, hozkailua, sukaldea, labea, garbigailua eta telebista. Ontzi-garbigailua, mikrouhin-labea eta ordenagailua, berriz, askoz gutxiagok daukate. Ikerketan atera den datu esanguratsu bat igogailuaren datua izan da, %71k ez daukalako.

**Aisialdiari dagokionez, bakarrik aurkitzen dira?**

Egin dugun inkestetan azaldu dutenez, Elorrioko alargunen %24k aisialdirako zailtasunak dituela azaldu du, gehien bat laguna falta duelako.

**Ekonomiari dagokionez, nolako pentsioa jasotzen dute? Zer-nolako egoera ekonomikoan aurkitzen dira?**

Alargun gehienek diru sarrera bakarria alargunen pentsioa da. Esandako moduan, 400-600 euroan kokatzen da. Horregatik, askotan diru falta, eta horrekin batera haserrea, agertzen da alargunen aldarrikapenetan.

**Ezagutzen dituzte administrazioak eskaintzen dituen diru-laguntzak? Familiaren aldetik jasotzen dute laguntzarik?**  
%60k ez ditu administrazioak eskaintzen dituen diru-laguntzak ezagutzen. Kanpoko laguntza edo zaintza gehienetan seme-alabengandik jasotzen dute.

**Alargunak ikusezin bihurtu dira gizartean? Elorrioren eta Zornotzan elkartea dute, baina gainerako herrietan?**

Gainerako herrietan ere badaude alargunen elkarteak eta lortzen ari diren hobekuntzak guztien indarrak batzen dituztelako da.





**Javier Renobales** | Aktorea | Zornotza, 1964

## “Berba batek baino gehiago adieraz dezake keinu batek”

‘Kibubu’ antzeztuko du Marie de Jongh taldeak, apirilaren 13an, 18:00etan, Durangoko San Agustinen. Feten saria jaso duen Javier Renobalesen lana izango da ikusgai, besteak beste

### > ITSASO ESTEBAN

**Xebas zara obran. Zelakoa da Xebas?** Cocogaz osatzen du Xebasek pailazo bikotea. Arrakastarik ez dute izan, baina gogo eta ilusioa ez dute falta. Ezagun eta arrakastatsu egingo dituen ikuskizuna prestatzen ari dira. Gorila bat erosteko ideia jeniala bururatuko zaio Xebasi. Gorila etxekotu eta beragaz agertoki handienetan saioak eskaintzea da plana. Baina gorilak bere izaera dauka, eta ez du Xebasek agintzen diona txintik esan barik beteko. Gorilari gauzak irakasteko saiakera horretan, Xebas eta Cocó dira gehien ikasiko dutenak.

### Berbarik barik erakusten du Kibubu gorilak ere bere pertsonalitatea.

Bai, noski. Berbarik bako keinuetan oinarritutako antzezlana da *Kibubu*. Marie de Jongh gure taldeak egin dituen gehienak dira testurik bako antzezlanak. Antzezlanekoa berba bako borroka bat da, Xebasek gorilak egitea nahi duenaren eta gorilaren duintasunaren artekoa. Momentu batzuetan gorilak ez dio jaramonik egiten Xebasi, eta hortik sortzen dira antzezlaren tramako gatazkak. Harreman hirukoitzaren kontakizuna da berben beharrik barik kontaktzen duguna.

### Zer sentimendu eragiten du lanak eta Xebas zure pertsonaiak?

Aspalditik gure lana ezagutzen duen lagun batek esan zigun: “Marie de Jonghen lan bat ikustea emozioen errusiar mendian ibiltzearen parekoa da: barre-algaratik negarrera; eta gorabehera horretan zabilta”. Egia dela uste dut: Jokin Oregik kontaktzen dituen istorioak beti dira oso emotiboak. Xebas istorioaren gorabehera horien zerbitzura dago.

Tomas Fernandezek egiten du Kibuburen papera, eta Ane Meabek Cocorena. Oso ondo ezagutzen duzue elkar, ezta? Ane Meabegaz eta Jokin Oregigaz urte asko daramatzat lanean, azken urteetan, Marie de Jongh konpainiaren ikuskizun guztietan jardun gara elkarregaz.

“

*Marie de Jongh taldearen lan guztiak bezala, keinuetan oinarriturikoa da ‘Kibubu’ antzezlana*

**Karakterizaziorik onenaren eta gizonetzko interpretazio onenaren Feten sariak jaso ditu ‘Kibubu’ obrak. Baina Marie de Jongh lehenago ere saritu dute.**

Bai. Marie de Jongh 2006an sortu zen, eta gure lehenengo ikuskizunak, *Zer duzu Marie?* lanak, Feten jaialdiko ikuskizunik onenaren saria jaso zuen. *Alabatxo* izan zen hurrengo egin genuen obra, eta ikuskizun onenaren saria jaso zuen Feten jaialdiaren duela bi urteko edizioan. Obra horregaz, Washington eta New Yorken ere egon gara. Eta, aurren, beste bi Feten sari jaso ditugu *Kibubugaz*, bai.

### Zein izan da obrako lanik zailena?

Pertsonaiari aurre egitean datza, beti, gure lanaren parterik inportanteena, eta adierazkortasuna lortzean; pertsonaiari keinuak, gorputzaren konposizioa eta mugimendua ematea da garrantzitsua. Hori da gure lanaren ardatza, eta ohituta gaudenez, ezin esan zaila denik. Baina



Kibubu gorila eta Xebas dira antzezlaren protagonistetako bi.

pertsonaia bakoitzari bere izaera eman nahi diozu; orain arte egin dituzun pertsonaietatik bereizi. Keinua da horretarako tresna. Denok daukagu keinuren bat bakar egiten eta definitzen gaituena, eta beti nabil horren bila; aktore naizen heinean oso erabilgarria egiten zaidalako.

### Emanaldietan beste disfrutatzen duzu aurrean horretan?

Askoz gehiago! Sorkuntzaren momentu horietan ematen duzu zeuretik gehien, intimitate horretan. Entseguetan Jokinnek planteaturiko eszenak gauzatzea ere oso gozagarria izaten da. Horiek dira momentu sortzaileenak eta emankorrenak. Emanaldia ere beste sorkuntza prozesu bat da, sekula ez aurrekoaren berdina. Prozesuaren parte guztietan, beti saiatzen gara daukagun onena ematen.

### Testurik bakoa izateak errazten du obra bat zabaltzeko bideak aurkitzen?

Bai, eta ez atzerrian emanaldiak eskaintzeko bakarrik. Joan zen asteburuko emanaldira, esaterako, gor-mutu talde bat etorri zen; oso esker onez eta emozio handiz hartu zuten gure lana. Sarritan, berba batek baino askoz gehiago adierazten du keinu batek. Berbaz esan dezakezu “triste nago”, eta zuzen-zuzenean publiko guztiak jakin du triste zaudela, baina

*triste* horrek gauza askori egin diezaioke erreferentzia, eta emozioen nabardurak adierazteko keinuak baliabide gehiago eskaintzen dituela uste dut.

### Zelako harrera egin dio publikoak, orain arteko emanaldietan, Kibuburi?

Oso ona. Oholtzan Kibubu gorila agertzeak sortzen du inpaktu bisual bat. Erakargarria da. Eztabaida ere sortu izan du batzuetan [barrezka]: gorila oholtzara ateratzean entzuten ditugu umeak eztabaidan: “-Benetakoa da! -Ez, ez da benetakoa -Bai, badaaa!”. Jokinek hasieratik oso argi zeukan benetako gorila bat nahi zuela. Hori ezin daitekeenez izan, errealitatetik ahalik eta gertuen karakterizatu nahi izan zuen, eta zinemarako efektu bereziak egin dituen enpresa batekin sortu dugu animalia. Gorilaren mugimenduak ere ahalik eta gehien landu ditugu: tximinoen gaian aditu batek eman zizkigun gorilen anatomia eta mugimenduei buruzko azalpenak.

### Publiko familiarrentzat sorturiko antzezlana da, ezta?

Bai, horrela da. Umeak helduekin etor daitezela da nahi duguna: umeak amagaz, aitagaz edo aiton-amonekin istorio horiek partekatzea gura dugu. Oso aberasgarria eta oso polita da hori.



Gorila hezi guran, Cocó eta Xebas izango dira gehien ikasiko dutenak.



> **ANTZEZPENA**

## Durangoko Pasiñoaren XXI. edizioa, Asategik zuzenduta

Apirilaren 16an, 17an eta 18an egingo dituzte emanaldiak, 21:00etan hasita

> **ITSASO ESTEBAN**

Durangoko Pasiñoaren XXI. edizioa antzezpena egingo dute apirilaren 16an, 17an eta 18an, 21:00etan hasita, Santa Ana plazan. Eguaztenean, Kurutze-

santu Museoa aurkeztu zuten Aitziber Irigoras Durangoko alkateak, Xabier Arana ekitaldia antolatzen duen Juan de Iciar kultur elkartearen lehendakariak, eta aurtengo antzezpenen

parte hartuko duten hiru durangarrek: Jesusen papera egingo duen Egoitz Iraurgik eta Mariarena egingo duen Ima Asategik, eta Txema Asategi antzezpenaren zuzendariak.



Eguaztenean, Kurutzesantu Museoa egin zuten aurtengo edizioaren aurkezpena.

> **ZILAR ASTEA**

## Bisitariak museora erakartzeko, alpistea eta ezta sarreran

Durungaldeko hiru artistaren ekintza artistikoa



Bi orduz jardun ziren artistak ekintza hori plazaratzen.

Zilar Astea ekimenaren harira, Durangoko Arte eta Historia Museoa atondu zuten Arte plastikoen fabrika, martitzenean. Museoaren sarreran esku-hartze artistikoa egin zuten 80. hamarkadan jaiotako Durungaldeko hiru artistak. Karlos Martinezek, Miriam Peñak eta Ander Lauzirikak honako paralelismo hau egin nahi izan zuten ekintza horregaz: txoriak alpistea eta ezta gerturatzaren diren moduan erakartzea ikusleak museoetara. Horixe azaldu zuten artistek ekintzaren ostean.

Karlos Martinez, Miriam Peña eta Ander Lauzirika Durungaldeko artistak elkarlanean jardun ziren

Bi orduz jardun ziren artistak museo sarrerako ekintza hori plazaratzen, eta Mikel Onandia artearen historialari eta

Xabier Aranak azaldu zuenez, ehundik gora lagunek hartuko dute parte Durangoko Pasiñoaren aurtengo antzezpenean, eta 45.000 euroko aurrekontuagaz antolatu dute.

Aitziber Irigoras alkateak "eskerrik asko erraldoi" bat agertu zien Kurutzesantuko aurkezpenera batu ziren parte-hartzaileei: eskerrak eman zizkien, "batetik, Durangoren izena kanpora ateratzen dutelako, eta bisitariak erakarri; eta, bestetik, gaur egun ezohikoa den arren, lana debalde eta motibazio itzelagaz egiten" dutelako.

Bi ordu eta erdiko antzezpena eskainiko dute datorren aste-ko hiru egunetan, azken aldia emanaldiaren zuzendaritza lana egin barik zeukan, eta azken urteetan Juan de Iciar kultur elkartearen lehendakaria izan den Asategiren gidaritzagaz.

Gaurtik aurrera Santa Anako El Arco tabernan daude antzezpenerako sarrerak salgai, 6 euroan. Ohi bezala, gainera, telefonoz erreserba egiteko aukera ere badago, 656 777 321 zenbakira deituta.

kritikariagaz, artistek berbaz azaldu zizkieten euren esperientzia eta asmoak bertaratutako entzuleei, Arte eta Historia Museo-ko solasaldian.

Mikel Onandiak azpimarratu zuenez, "ekintzak berak indarra dauka, artearen prozesu-izaera, sortzearen esperientzia, erakusten duelako; eta leku eta une bati loturiko esperientzia errepikaezina delako, denboragaz desagertuko delako". Miriam Peñak azaldu zuenez, kalean zehar zebilen jendeak parte hartu ahal izateko aukera eman zezakeelako aukeratu zuten ekintza hori.

Hain zuzen, sorkuntzak, "egiteak" daukan garrantzia erakustea da 2014an Plateruenaren bueltan batutako Durangoko kultur sortzaileek eta eragileek eduki duten helburua: fabriketan bezala, amaituriko produktua bakarrik barik, produkzioaren martxa ere ikusgai izatea: artelanaren sortze-prozesua bera ere bistaratzea.

### GEURE DURANGALDEA

**FERNAN RUIZ**

Berberoko kidea



#### Esku biak

Eskua (eskuina) luzatu dit abegitsu. Neuk ere hala egin dut eta bat egin dute esku on biek, esku-ahur guriak eta latzak. Une horretan, bere izaera transmititzeko intentzior edo, irmo oratu eta estutu dit bostekoa, eta indarrez eragin. Berba egitean ere, tinkotasun handia erakusten du. Baserriko atartean eseri gara berrikeretan. Orain arte, beti pentsatu izan du eskubideen defentsan (eskumatik) jardun izan dela, hori esaten du. Karguduna izanik, ataka estuetan izan du bere burua sarri; baina esku-zabal jokatu du beti esku okerreko bidetik armak eskuetan ibili direnekin eta haien lagunekin, hori esaten du. Eta inoiz, esku-hartze bortitzak egiteko agindu izan diela mende-koei, eta ordainetan eskupekoen bat ere jaso izan duela.

Garrantzi handia ematen die gorputz-adar horiei, eskuei. Dio gorputz adierazkortasun nabariena begiek eta eskuek erakusten dutela. Batzuetan, burmuinaren agindu barik ere, ezker-eskuinek adimen propioa balute lez, bizkortu eta euren kabuz ekiten baitiote. Burugabekeria askoren konplize isil bilakatzen dira, eskuma eta ezkerria.

Erretiroa hartu eta gero onartu du, hainbatetan, eskuak garbitu dituela eskubideei eskuburdin jarri izan dizkietenean.

Orain badu damurik, eta otzan eta eskuzabal ageri da iragana iragan delako eta bere buruaz zintzo jokatu gura duelako. Altxatu da, badoa metatuta utzi dituen sasi zikinak erretzera... Eskuina luzatu dit abegitsu. Esku-ahurrei erreparatu diet; latzak, larrugogorrrak, lan eskerga egindakoak, esku onetik...

**KIBUBU**  
Marie de Jongh antzerki taldea  
Apirilaren 13an - 18:00etan  
San Agustin KULTUR GUINEA  
DURANGOKO UDALA

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia  
www.plateruena.net

**aRtea** APIRILAREN 7TIK 12RA  
ZILAR ASTEA 2014  
Egitaraua: www.facebook.com/plateruena

APIRILAK 12 - 21:00etan Sarrera+baque bat=10 euro  
**POTOLOGUAK**  
BAKARRIZKETA

APIRILAK 26 - 22:30ean 6 euro  
**COBRA + ERASO!**  
MUSIKA KONTZERTUA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu  
**deitu!**



**946 217 902**



# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,  
behea eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

**Oreka**  
Idurre Zabala Amezua

**FISIOTERAPIA  
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin eustea, traumatologia, kirola, auto istripua, drainatze linfatikoa (basektomia ondoren)...*

Iturriza, 44 - behea ezkerre  
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 593

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUBARRENA**

PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO  
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

## PODOLOGIA

**JON GERRIKAETXEBARRIA**

Gaixotasunak - Ortopedia  
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma  
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

**PODOLOGIA  
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA**  
PODOLOGOIA

**AINHOA ELORZA**  
PODOLOGOIA

*Kiropodia, onikopatía, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak*

Monagotorre, 4 - behea  
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

148/13

## ESTETIKA

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

[www.medicinaesteticaedurango.com](http://www.medicinaesteticaedurango.com)

**Laser berria:**

*Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra*

*Obesitatea-zelulitisa,  
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

Txatxiena, 6  
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

## ODONTOLOGIA

**clínica dental hartzklinika**

**B. UNAMUNZAGA  
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetorre, 2 - C behea  
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

**J.L. URRETA ZABALO**

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA  
IMQ, PADI (umeen hartz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk  
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

## OPTIKA

**ZENTRO OPTIKOA**

*Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren ikusmena, ikusmen terapia, audiometria, NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA*

Arkaraz, 3  
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 099

RPS: 162/13

## PEDAGOGIA

**UGAITZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO  
ZENTROA**

*Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,  
Fisioterapia, Logopedia*

Juan de Olazarán, 1 behea  
48200 DURANGO

Tel. 94 466 83 70 - 615 782 090

RPS: 63/63



**Profesional  
onenak zure  
zerbitzura!**



> **ANTZERKIA**

# “Ilusio handiz idatzi dugu lan berriaren gidioia”

‘Potologuak’ bakarrizketa saioagaz Plateruena barrez leherraraztera dator Txintxeta taldea, bihar; Mikel Pagadi aktoreak erantzun die galderei

> **ITSASO ESTEBAN**

‘Bodologuak’ ikuskizuna “mejoratuta” dakarzuela diozue. Zertan da hobea ‘Potologuak’? Hasteko, gu geu gatoz mejoratuta: kilo batzuk gehiagorekin. Gidoia ere meioratu dugu; ilusio handiarekin idatzi dugu lan honen gidioia, eta ilusio beragaz antzeztuko dugu.

‘Bodologuak’ ikusi zuenak zer berri topatuko du Durangora ekarriko duzuen ikuskizunean? Estilo berdinean jarraitzen dugu, baina dena da berria. Lehen *Bodologuak* ikusi zuenak ondo pasatuko du, eta ikusi ez zuenak ere bai. Ez da lehenengoa ikusi behar hau ikusteko, independenteak dira, nahiz eta estilo bereko ikuskizunak izan.

**Geure buruaz barre egitea da ikuskizunaren ardatza?**

Bai noski! Ikusleek diotenez, asko identifikatzen dira guk kontatzen ditugun gauzekin, eta

barre egiten dute. Gainera, gehigarri bat ere badago ikuskizunean: Pagadik tarteka estropezu egin dezake, eta horrekin ere barre egin dezake ikusleak.

**“Zer premio nobelek asmatu zuen komuneko eskobilla?” eta bestelako galderak egiten dituzue bakarrizketan. Baina erantzunik ematen al duzue?**

Ezinbesteko galdera asko planteatzen ditugu, bai. *Eskobilla*rena, esaterako, edo nola bihurtzen den pertsona bat “ama”, zer zentzu duten tabernetako komunetako marrazkiek, zer zazpi plaga dauden Euskal Herrian eta beste hainbat. Erantzunak zuzen-zuzenean emango ditugu, larunbatean, Plateruenean.

**Txintxeta taldeko hiru kideetako bakoitzak bere umore estiloa dauka? Zer ezaugarri du bakoitzarenak?**

Hiru ikuspuntu dauzkagu zelanbait, bai, eta oso ondo konekta-

tzen dutenak, gainera: Nagorek badu berea, zorrotza eta fina; Egoitzek ikuspuntu zabalagoa du, duen altuerarengatik batik bat; eta Pagadiren ikuspuntua daramatzen betaurreko horiek distortsionatzen dute.

**Entzuleengan ere erreakzio ugari eragiten du zuetariko bakoitzak?**

Bai, batzuk gauza batzuekin identifikatzen dira, eta beste batzuk beste batzuekin. Baina denek dute aukera batekin edo bestearekin erreakzionatzeko. Publiko zabalari dago zuzendua bakarrizketa ikuskizuna.

**Zer harrera egin dizue jendeak orain arteko emanaldietan?**

Aurreko ikuskizunean bezala, oso gustura gaude jendeak zelan hartzen gaituen ikusita. Harre-*ra* paregabea izan dute *Potologuak* eta pozik egoteko modukoa da hori. Diotenez motz egiten da emanaldia, eta oso ondo pasatzen omen dute. Gure senitarteko ez direnek ere bai!

**Sarreragaz, kafetxoa opari jasoko dute bertaratzen direnek, Baqueren kortesiaz. Zer beste arrazoigatik joan behar luke jendeak zuek entzutera?**

Gure ustez, momentu oso ona pasako dutelako: barre egingo dutelako eta kafearen ostean beste zer edo zer ere hartzea badutelako Plateruena bezalako toki bikain eta dotorean.



Nagore Aranburuk, Mikel Pagadik eta Egoitz Lasak egiten dute ‘Potologuak’.

> **PINTURA**

## Xabier Soubelet-en margolanen bilduma

Durangoko Arte eta Historia Museoa ikusgai

Xabier Soubelet (Ziburu, Lapurdi, 1953) margolariaren lanen bilduma ikusgai dago Durangoko Arte eta Historia Museoa, hilaren 27ra arte. Ibilbide luze eta oparoko pintorea da Soubelet: lau hamarkada daramatza Baztanen (Nafarroa) eta Lapurdin lana garatzen. Urte haue-*tan* guztietan autodidakta gisa jardun izan da, eta 2.000 koadro baino gehiago osatu ditu.

Hastapenetan inpresionismo gerturatu zen Xabier Soubelet, baina laster Cezanne margolariaren jardunak eragin zuen bere margotzeko eran. Gaur egun espresionismoaren bidean doa, espresionismo abstraktutik gertu dihardu, eta kolorea da bere konposizioetako oinarritzko elementua: ahalik eta kolore puruenak, bizienak, primarioenak bilatzen ditu.



Baztango (Nafarroa), Lapurdiko kostaldeko eta Durangaldeko paisaiak agertzen dira koadroetan.

**katerin ardoak**  
**inñaki uribe**

**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak  
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan.com**

**GAER**  **DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

**LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...**

**Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ**



# BATXILERGOAK 2014-2015

ZATOZ GURERA!! • INFORMA ZAITEZ

ISO 14001:2004  
ISO 9001:2008

[www.durangojesuitak.org](http://www.durangojesuitak.org)



- 130 urtez Durangaldeko gazteak hezten
- Ibilbide akademiko malguak eta aukerako ikasgai eskaintza zabala
- Eleanitza (Euskera-Castellano-English-Français)
- Norbanakoaren jarraipen pertsonalizatua
- Eguneroko jardunean txertatutako teknologia eta metodologia berritzaileak
- Solidaritatea eta Kristau balioak oinarri



Kurutziaga, 1 - 3 P.K. DURANGO Tel.: 94 681 00 50 Fax: 94 681 03 04 E-mail: [sanjose@durangojesuitak.org](mailto:sanjose@durangojesuitak.org)



**Ikastetik haratago!**



**irakurri4**  
aldiz ARINAGO  
DURANGO

**prakagorri.es**  
944 91 57 63

**ASTE SANTUKO IKASTARO TRINKOAK**

Ulermen jasoko irakurketa ..... 9:00 - 11:00  
Ikas-metodo eraginkorrak..... 12:00 - 13:30

**Egunak:**

14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Izen-emate epea 14ra arte

Barrenkalea, 20 Durango | prakagorri@prakagorri.es | 944 915 763

## GUZTION ERANTZUKIZUNA

Iraganean, gure gaztaroan, informazioa lortzea ez zegoen herritar guztien esku. Jakintza guztia entziklopedietan, hiztegi gutxi batzuetan, neba-arrebarik zaharrenek adinean aurrera eginez gazteenentzako uzten zituzten eskuliburuetan eta aldiro-aldiro argitaratzen ziren aldizkari gutxietan azaldutako idatzietan besterik ez zegoen.

Herri-liburutegiak ez zeuden toki guztietan eta hainbatetan eskualdeetako herri garrantzitsuenetako liburutegietara joan beharra izaten zen informaziorik aurkitzeko aukera izatea nahi baldin bazen. Oztupo ugari eta gabezia gehiegi gauza onerako norbere jakin-mina behar bezala elikatu eta maila intelektuala hobetu eta garatzeko.

Gaur, aldiz, egoerak arlo horretan askoz hobera egin duen arren, eta orain urte batzuek ez bezala, nahiz eta informazioa eskuratzeko aukera ikaragarriak edozeinek bere eskura dituen, ez zaio abagune horri atera beharko litzaiokeen betekina ateratzen.

Egun, ikasteko benetako grina, kementa eta gogo duen edozeinek inoiz baino erraztasun gehiago du bere burua hobetzen jarraitzeko. Beti bezala, horretarako beharrezko diren elementurik nagusienak gogoia, motibazioa eta metodologia dira.

Baina egungo gazteek aipatu elementu horien gabezia nabarmena dute eta euren kalterako ikastetxeetan ez die ikas-prozesu bikain, egoki eta arrakastatsu baterako metodologia, teknika edota baliabiderik irakasten.

Ikasteak, gaur inoiz baino gehiago, beste trebetasun batzuk landu, hobetu, garatu eta erabiltzea eskatzen digu, baina baita oldozmen maila jasoa eta asoziazio-maila jasoa izatea ere. Informazioa partekatzearen aldeko gero eta ekimen gehiago bideratzen diren gure gizarte honetan gauzak buruz ikasi eta gordetzeko jarrerak iragana dira.

Tamalez, azterketa batetan puntuak ateratzeko eskatzen diren edukirik gehienak interneteko edozein orrialdetan agertzen diren antz-antzeko dira eta, ondorioz, eduki horiek ez dute gordetzeko merezi, etengabe eskura baitaude.

Ikastea ezagutzak barneratu nahi dituenak, betidaniko gauzak begi desberdinekin begiratu behar ditu. Inteli-

gentziaren garapenaren ardatza jakintza barneratzea da. Gaiak gaintzea edota ikasteko jardura bera ere ez dira hain garrantzitsuak. Ikasketa baliabide bat besterik ez da eta gaia gaintzea, gehienetan, ondorioa besterik ez da, baina ez beti.

Gaia gaintu izanak ikasleari behar duen zoriontasunaren zati bat ematen dio eta, ondorioz, emaitza jakin bat lortzea, guraso, irakasle eta ikasleentzako, benetako helburua izatera, bakarria ez esatearren, iristen da, ezagutzak barneratzea bera baino garrantzitsuagoa izanez.

Are gehiago, gorago aipatutako errealitate horretan gurasoak erantzukizun handia dute, hainbatetan edukiak barneratzeko euren seme-alabek erabiltzen dituzten prozesuei baino garrantzi askoz gehiago ematen baitiote gaia gaintzeari berari. Eta hori ez da bidea. Ezta gutxiagorik ere.

Esanguratsua da, gurasoak euren semea "den bezalako denez" ikastea kontzientziaz zaiola pentsatzen dutela ikusteak.

**PRAKAGORRI**ra datozkigun hainbat gurasok euren semeak orain arte ikasketarako ohiturarik eza izan duela, egun ere duela ikusiz edota orain denbora asko galdu zuela adieraziz hurbiltzen zaizkigu.

Agian, guraso bezala, semearekiko duzun harremana hein handi baten behintzat bere eskola-emaitzen eta ikasketa arloko eragozpenen eremuko gaien inguruko besterik ez dela begitanduko zaizu.

Beharbada, hurrengo hau ere inoiz pentsatuko zenuen: semea edo alaba benetan ikasten jarriko balitz eta egiten duena baino lan gehiago egingo balu, arreata askoz gutxiago galduko balu eta klaseak askoz gehiago aprobetxatu eta esaten zaizkionak bete eta esandakoari jaramon gehiago egingo baliokete.... emaitza onak atera ahal izango lituzke.

Baina...ez du horrelakorik egiten eta, ondorioz, bidearen azkenean bere ikasketekin, bere etorkizunarekin, bere bizitzarekin, bere garapen pertsonalarekin, bere zorionarekin zer gertatuko den jakiterik ez dago.

Ikasketa ez da obedientzia edota borondate kontua bakarrik. Ikasketak esperientziarekin eta norbere atseginarekin zerikusi handia du. Ikasten ez dakien ikasleak, ikasketetan beti errenka dabilen ikasleak beti esaten du ez duela ikasi

nahi, ikastea ez duela gauza atsegina, ikasketetarako motibaziorik ez duela edota ikasketekin gogait besterik ez duela egiten.

Izaera horretako ikasle batentzako, ikasketa, zama ikaragarria eta duintasunez eraman ezineko zeregin astuna besterik ez da, inolako erakargarritasunik ez duen jardura eta, ondorioz, ikasketetarako bere burua baliogabetzat jotzen duenak ez du ikasten edota ikasteko ahalgintza bat edo beste egiten baldin badu ere ez dio etekin erabat urria [ezer lortzekotan ere] besterik ateratzen eta hurrengoan berriro saia dadinean aurrekoan baino askoz gehiago kostatuko zaio eta azkenean ez du ezer gutxi besterik egiten.

Gurasoak euren semeen emaitzez larregi arduratzen dira eta gutxi euren ikasketa-prozesua eroangarriagoa, atsegina eta erakargarriagoa izan dakien helburuz euren gaitasun intelektualak garatu eta hobetzen.

Azken asteotan, ikastetxe batek zazpi urteko ikasleek aurtengo ikasturte bukaeran lortu beharrekoak dituzten ezarritako lorpen edota emaitzak, irakasleak bere gelan duen ume batek aipatutako maila lortuko ez duena aurreikusitako ondoren, gurasoei datorren urtean euren zazpi urteko semeak ikasturtea errepikatu egin beharko duela adieraztera eman die inolako zirkuniz gabe.

Jakina, gurasoengan erabaki horrek artegatasun eta egonezin handia sortu du baina, ikasleari izugarriko hondamendi emozionala ekarri dio. Irakaslearen jarrerak bestelakoak izan behar du eta ez eragozpenak azaltzen direnean etsipenez jardun.

Ezina ekinez egin izaten da eta irakasle batek ezin egin behar ditu atzean gelditzen den ikaslearekin batera ilusioz, jarrera atseginez eta metodologia egokiz jardunaz arreata gehiago behar duen ikasle horrek ikastetxeak berak ezarritako mailak lortu ditzen. Ezina burutik kendu egin behar da. Ez dago ezinik. Ezina jarrera mentala besterik ez da. Irakasle bikain batek ez du ezer ezinezkotzat izan behar. Ikasle bakoitzarekin irakasleak helburuak lortzen ez dituen erantzukizuna ez da ikaslearena, irakaslearena baizik. Hori da, emaitzak helburu izatearen ondorio latza. Hori ez da biderik egokiena, emaitzak ez baitira ikas-prozesuko gauzarik garrantzitsuena.

Seme edo alabaren borondaterik ezak, egunero galtzen duen denbora ikusteko bere heldutasunik ezak, bere etorkizunetarako egungo ikas-prozesuaren eragina erabat garrantzitsua denaz ohartu ez

izanak edota zure seme/alaba eskolako eginbeharretan luzaroan ikasten egon arren etekin gutxi lortzen duena ikusleak arduratzen bazaitu, **PRAKAGORRI** bere metodologiak [ulermen jasoko irakurketa metodoa, ikas-metodo eraginkorrak, jendaurrean hitz egiteko teknikak etab.] irakatsiz, gorago aipatutakoak bezalako egoerak bideratzeko bere laguntza eskaintzen dizu, zure seme/alabarentzako eta baita zuontzako ere gauzak errotik aldatuko direnaren ziurtasuna baitauekazu.

Seme-alabei egokitasunez eta eragin-kortasunez irakurtzen eta ikasten irakatsi behar diegu. Bidea ez da azterketa egin aurreko hiru-lau eguneko epe laburrean egindako gehigarriko lanaren ondoren azterketa gaintzea edota eman behar dituen zeregin edo lanak beste helbururik gabe eginda aurkeztea.

Oro har, ikastetxeetako dinamikarik gehienak eta egungo hezkuntza sistemak ezarritako erakargarritasunik gabeko jarduerak eta hainbat irakaslearen benetako bokaziorik ezak, ikaslearen ikasketenganako interesik ezaz gain beste ezer gutxi eragiten dute.

Ikastetxeek ez dute ikasleak landu beharrekoak dituen gaie buruzko erakargarritasunik sorrarazten eta, ondorioz, adinean gora egiten duten neurri berean ikasleak are eta interes eta implikazio gutxiago agertzen du. Ikasleek ez dute euren ezagutza areagotu, ugari, jakintza mailan hornitzen joan eta formazio intelektuala aberastu eta garatzeko ikasten. Ikasleek ikas-prozesua derrigorrez egin beharreko ekintza gisa bizi dute. Eta ikuspegi hori ez da ikas-prozesuan etekin bikainak lortzeko abiapunturik onena. Ikastetxeek dinamismoa, sormena, eta etengabeko eraginkortasuna eta emaitzak bikainak lortzeko grina izan ez dagien bitartean eskolak porrot egiten jarraituko du eta berarekin batera, ikasleek. Irakaskuntza, lana baino askoz gehiago da. Irakaskuntza bokazioa da, irakaskuntzak gorputz eta arimaz jardutea eskatzen du, irakaskuntza eskuzabaltasuna da, irakaskuntza ikaslearen heziketa bikaina helburu duen jardura da, irakaskuntza maitasuna da.

Ikasleak, hainbatetan, irakaslearen ikusten duenetik gehiago ikasten du irakatsitakotik baino. Hainbat urtetako esperientziaren arabera, jakin dakigu sarritan seme-alabak ikasketen inguruan izaten dituzten eragozpen, traba eta egoera larriak garaiz atondu ez izanak ondorio latz eta batzuetan garrantzak dakartzana.

Ahalmen intelektualen garapen eta maila jasoa lortzeko erabakia lehenbait lehen hartzea egoerak errotik hobetzeko eman beharreko lehen urratsa da. Horrela ez jardutea, eragozpenei tokia ematea da. Prebentzioak ikasketetan sortu daitzeko arazoak aurreikusitako eragozpenak saihestea dakar.

Izatez, gure gaitasunak uste ditugunak baino askoz handiagoak dira. Gaitasunok garatu eta bikainagoak izatea gure esku besterik ez dago, baina horretarako ahalegin nahiko egin beharra dago eta gehienetan gauza berriez jabetzeak eskatzen digun ahalegina egiteko ez omen da, sarritan denboraren aitzakia ezarritako, asti edota gogo handirik izaten. Irakurketa, burmuinaren gimnasia da eta, ondorioz, nagusiok irakur-ekintza ikas-prozesua optimizatzen duen jokabide positibo gisa berbalioztatu beharra daukagu.

**Gorka Aurre, PRAKAGORRI**  
prakagorri@prakagorri.es



# Kirola



## Elorrioko plazako pilotalekuan jokatuko dute herri arteko finala

Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketari beste pizgarri bat eman gura izan diote

### > JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketa asteburu honetan hasiko da, eta aurtengo aldiak nobedade nagusi bat izango du: uztailaren 5eko finala Elorrioko plazako pilotalekuan jokatuko dute.

Fernando Azkarate pilotari ohia EAJko zinegotzia da gaur egun Elorrion, eta txapelketako aurkezpen ekitaldian izan zen. Bere sasoiaren makina bat herri arteko txapelketa jokatu dituen arren, pilotaleku ireki batean herri arteko finalik inoiz jokatu den gomutarik ez duela adierazi

du. Txapelketari beste interes bat emateko "erabaki eragin-garria" izan daitekeela uste du. Pilotalekuak arauzko neurriak ei ditu, luzeran, zabaleran zein garaieran. Atzealdean eta harritzko eserlekuen gainaldean harmailak ipiniko dituzte, ikusle kopurua handitzeko. Gogoratu behar da finalaren aurreko eguna, uztailak 4, San Valentin Berriotxoaren eguna izango dela.

Erabakiak aldeko eta kontrako iritziak jaso ditu eskualdeko pilota eskoletako ordezkarien artean. Hausnarketa bategaz denak ados daude: pilotalekuak

zoru lehorra du, pilota askoz gutxiago ibiltzen da, boteak gorantz egiten du, eta horrek gutxiak jokatzeko modua baldintzatuko du finaletan. Jotzaileentzat ez da pilotaleku aproposa, eta askoz lan gehiago egin beharko dute tantoa amaitzeko. Pilotak pilotalekuaren ezaugarriak kontuan hartuta ipiniko dituzte.

Erabakiari dagokionez, batzuek uste dute Bizkaiko herri artekoak tradizio handiegia duela finalak pilotaleku ireki batean jokatzeko; beste batzuek diote txapelketari beste pizgarri bat eman diezaikeela.

Aurten Durangaldeko sei herri arteko finalak dute herri artekoan. Durangok eta Iurretak asteburu honetan hasiko dute txapelketa, behe-behetik. Durangok Lezama du arerio. Iaz ezin izan zuten parte hartu, gazte mailako bikotea falta zitzaielako. Iurretak Etxebarriaren aurka jokatu du lehen kanporaketa, eta final zortzirenetara heltzea du helburu.

Atxondok bigarren kanporaketan ekingo dio txapelketari Sestao-Santurtzi kanporaketa-ko irabazlearen kontra. Mallabiak, Elorriok eta Zornotzak, aldiz, final zortzirenetan hasiko dute txapelketa, maiatzaren 25ean. Zornotzak Udaberri Sarriko txapel bi irabazi berri ditu kadeteetan eta nagusietan.

Zesta-punta modalitateari dagokionez, Durango izango da eskualdeko ordezkari bakarra.

### > SASKIBALOA

## Zornotzak bere esku du playoffetara sailkatzea

Playoff postuan dago azken jardunaldiaren atarian

Zilarrezko mailako Adecco ligan asteburuko jardunaldia falta da liga erregularra amaitzeko. Zornotza Saskibaloitza Taldea igoerako playoff postuan dago (9. tokian) eta bere esku du sailkapena. Bihar Avilako Eulen Carrefour taldearen kantxa bisitatu du. Irabaziz gero, sailkatu egingo da, eta galduta ere baditu aukerak, jardunaldiko emaitza batzuk aldeko baditu.

Joan zen asteburuan galdutako egin zuen etxean Kataluniako El Prat-en (Juventud taldearen filiala) aurka. Hala ere, sailkapeneko bigarren sailkatuari hortzak erakutsi, eta afizioa berotzen duen partidua horietakoa jokatu zuten. Luzapenean erabaki zen norgehiagoka: 74-76. Zornotzaren aldetik Ibon Carreto

(25 puntu) eta Kyle Rowley izan ziren onenak. Azken hori jardunaldiko MVP izendatu dute.

Bestalde, asteon albiste pozgarri bat jaso du Zornotza Saskibaloitza Taldeak. Maiatzaren 9tik 11ra mutilen junior mailako azken fasea Larrean jokatu du. Bizkaiko lau talderik onenak lehiatu dira.

### Tabirako Baqué aukerekin

Euskadi mailako Lehen Mailan Tabirako Baqueren gizonen taldea playoff postuan dago liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan. Baina ez dago ezer ziurtatuta, talde asko daudelako garaipen baten barruan. Zapatuan, 19:00etan, Fundación Baskonia arerio zuzena hartuko du Landako kiroldegian.



Joan zen asteburuan, Larrean, jokatu duen partiduko une bat. Kepa Aginako.

### AGENDA

#### > FUTBOLA

##### MAILA GORENA

###### Zaldia - Ugeraga

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

##### LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

###### Berriz - Urbietza

· Domekan, 11:30etan, Berrizburun.

##### LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

###### Iurretako - Sestaotarra

· Domekan, 18:00etan, Larrakozelaian.

##### BIGARREN ERREGIONALA

###### Ezkurdi - Astrabuduako B

· Zapatuan, 17:00etan, Arripausuetan.

###### Iurretako B - Lezama Sport

· Zapatuan, 17:15etan, Larrakozelaian.

##### HIRUGARREN ERREGIONALA

###### Amorebieta B - Lemoaberri

· Zapatuan, 19:30etan, Txolonen.

###### Elorrio B - Iberlanda

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

#### > ARETO FUTBOLA

##### HIRUGARREN MAILA

###### Sasikoa - Laskorain

· Zapatuan, 17:30etan, Landakon.

###### Mallabia - Bilbo futbol sala

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

##### MAILA GORENA

###### Kurutziaga ikastola - Elorrioko Buskantza B

· Domekan, 10:15etan, Landakon.

###### Sasikoa B - Unta Ibarreko

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

##### LEHENENGO ERREGIONALA

###### Abadiñoako Gaztetxe - Zuentzat

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

###### Elorrioko Buskantza C - Aurrera Beti

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

###### Dantzari - Hegalariak

· Zapatuan, 16:00etan, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan.

##### EMAKUMEEN LIGA

###### Sasikoa - Muskiz

· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian.

#### > SASKIBALOA

##### LEHEN MAILA (gizonak)

###### Tabirako Baqué - Fundación Baskonia

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

##### LEHEN MAILA (emakumeak)

###### Tabirako Baqué - Fundación Ardoi

· Domekan, 11:00etan, Landakon.

##### LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

###### Zornotza - Portugaleta

· Domekan, 18:00etan, Ixerbekoan.

##### BIGARREN ERREGIONALA

###### Julza-Zaldia - Otxarkoaga

· Zapatuan, 17:30etan, Zaldibarren.



> **ERRUGBIA**

# Behetik gorako bidea egin du Durango Rugby Taldeak aurten

Peio Urkidi entrenatzailea gustura dago taldearen aurtengo lanagaz; sailkapenean azken-aurreko amaitu arren, talde lan ona egin dutela uste du



Aurtengo ligan bost garaipen erdietsi ditu DRTren lehen taldeak. Kepa Aginako.

> **JOSEBA DERTEANO**

Durango Rugby Taldeko nagusiek amaitu dute errugbi 15eko denboraldia Ohorezko B Mailan, eta balantzea egiteko garaia da. Ez da denboraldi gogoangarria izan, baina Peio Urkidi entrenatzailearen ustez, aurre-rapausoak eman dituzte iaiztik.

Iazko denboraldia zaila izan zen DRTrentzat. Ez zuen partidu bakar bat irabazi. Aurten behetik gorako bidea egin du. Kaskar hasi eta bigarren itzulitik aurrera maila hobean aritu

da. Guztira bost partidu irabazi ditu: "Aurten sailkapenaren erdian egotea genuen helburu. Sailkapenari begiratu gero, ez dugu helburua lortu, baina kirol arlotik begiratu lortu dugula uste dut. Taldea sendoago eta osatuago dago; alde horretatik urratsak eman dira", azaldu du Peio Urkidi. Arazo nagusia jokalariek eskasia izan da; batzuetan gizonen talde biek arazoak izan dituzte taldea osatzeko.

Laster errugbi 7ko txapelketa hasiko dute.

**Derbia eta Bizkaiko finalak** Bitartean, Euskal Ligan derbia jokatu dute asteburuan Elorriok eta DRT B-k. Zapatuan izango da partidua, 12:30ean, Elorrioko errugbi zelaian.

Horrez gainera, asteburu honetan Bizkaiko final bi jokatu dituzte Durangoko Arripausuetan. Finalak 16 eta 14 urtez azpiko taldeenak dira. Kasu bietan DRTk Getxo izango du aurkari. 16 urtez azpiko finala 12:00etan hasiko da, eta 14 urtez azpikoena 13:00etan.

lariek osatzen dute aurten Elorriko Txiki. Iaz mailaz igotzea lortu zuten. Horregatik, talde berria den arren, ez da sorpresa izan goialdean ibiltzea: "Gol asko sartu ditugu, baina, hutsegite batzuen ondorioz, nahi baino gol gehiago sartu dizkigute", dio Unai Zenitagoia taldeko kideak.

Batez ere etxean zigilatu dute lehen postua; partidu bat galdu eta gainerako guztiak irabazi egin dituzte etxean. Elorrioko gainerako taldeekin gertatzen den antzera, jende dezente joan da partiduak ikustera, eta jasotako "berotasuna" eskertu dute.

> **ARETO FUTBOLA**

## Elorriko Txiki eta Mallabia igoera fasean ariko dira

Bigarren Erregionaleko talderik onenen artean daude

Elorriko Txiki eta Mallabia B-k Lehen Erregionaleko igoerako aukera handiak dituzte. Liga erregularra multzoko aurreneko toki bietan amaitu dute eta horrek igoera fasea jokatzeko eskubidea eman die. Gainerako multzo bietako taldeekin batera, Bigarren Erregionaleko sei

talderik onenek elkarren kontra jokatu dute. Sei horietatik bost igoko dira. Bizkaiko futbol federazioak oraindik ez du jakinarazi igoera faseko jardunaldien egutegia.

Elorriko Txiki lider amaitu du bere multzoan. Iaz Elorrioko Buskantza C osatu zuten joko-

> **BOLOAK**

## Bizkaiko Txapelketa jokatu dute Zornotzan

Asteburuan buruz buruko Bizkaiko bolo txapelketa jokatu dute Zornotzako Epaltza auzoan. Guztira 75 bat parte-hartzaile izango ditu txapelketak, eta bolatoki modalitatean jokatu dute.

Aurten 42. aldia egingo du txapelketak. Zapatuan 16:00etatik 20:00etara lehenengo kanporaketa faseak jokatu dituzte. Eguneko 20 onenek domekan ebatziko dituzte txapelak, 10:00etatik aurrera hasiko den jardunaldian.

Zornotzan tradizio handia du bolo jokoak. Hainbat bolo taldek bizirik eusten diote tradizioari. Bizkaiko 51. Bolo Txapelketa ere hasita dago (zazpi jardunaldi joan dira) eta joan zen asteburuko jardunaldi Bernagoitian jokatu zuten. Txapelketari amaiera emango dion jardunaldia, aldiz, Epaltzan jokatu dute, maiatzaren 24an.

> **DUATLOIA**

## Deskalifikatuta baina bigarren amaitu du Ariznabarretak

Oier Ariznabarretak bigarren tokian amaitu zuen Espainiako Duetlo Txapelketa Avilesen, baina durangarrak ez zuen ezer ospatzeko. Proba hasi aurretik, parte hartu zezakeela, baina deskalifikatuta zegoela esan zioten. Arrazoia honako hau: elastikoaren aurrealdean ez ezik atzealdean ere bere abizenik ez agertzea. Espainiako federazioari gutun bat idatzi dio bere ikuspuntua adierazteko. Bertan azaltzen duenez, onartzen du araudia ez duela bete, "baina beste kirol batzuetan ahalegin guztiak egiten dituzte kirolariak lehiatu dezan. Ez zen korrikalaria arriskuan jartzen zuen araua edo lasterketan lehiatzen ari zela apurtutako araua".

**ADITUAREN TXOKOA**

**Eneritz Iturriaga**

Txirindularitza

**Probak bertan behera**

Durangoko duatlo fama-tua bertan behera utzi behar izan dute, eta uztailko Garaiko triatloia ere kili-kolo dago, trafikoaren araudi berriagatik. Zur eta lur gelditu nintzen lehenengo komentatu zidatenean, batez ere, 15 egun lehenago izan zelako, eta inork ez zuelako araudia ezagutzen. Baina, noiztik araudi hori? Federazioak nola baimendu dezake hori? Lasterketak urtetik urtera erregistratzen dira, eta baita baimenak eskatu ere! Nor da erruduna? Eta nola konpondu daiteke?

Oso une txarrean gaudu, krisia dela-eta. Jende askok, lanik gabe, kirolera jotzen du, bakoitzaren desesperazioak deskargatzen; osasungarria delako ere bai. Kirola da euren irtenbidea. Horretarako, bai klubak, bai lagun kuadrilla asko lanean aritzen dira urte osoan, martxa hauek aurrera ateratzeko; gehienak plazer hutsez, eta ez diruagatik. Eta ia dena antolatuta dagoenean, lasterketak suspenditu! Non dago gure morala? Gure eskubideak? Berriz ere politikarekin lotuta? Egunetik egunera erreago gelditzen naiz sekzio horrekin; Italian bizi nintzenean pentsatzen nuen han bakarrik zela, baina hiru urte daramatzat hemen bizitzen, eta hemen ere gauza bera. Jendea nola ez da egongo kokoteraino eurretaz? Horri aurre ezin zaionez egin, normala kirola egitea, gure haserrea non edo nondik atera beharra izatea: eta kirola, behintzat, gure esku beti!

**A. Urreta**  
podólogo

**Adinara Urreta Jainaga**

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

R.P.S. 214/06

Herriko gudarien kalea,  
10, behea - 48200  
**DURANGO**  
Tel./Faxa: 946 215 404

**Durangaldeko Baserritarren Elkarte**

**DIBA**

Murueta, 6  
Tel.: 94 681 87 92  
48200 ABADIÑO BIZKAIA





*Gorputz desberdina, baina bihotz berbera.*



## FORD FOCUS

### > EcoBoost motorra

Formula Ford auto bat gidatzearen sentsazioa.

Auto bi hauek antzekotasun asko dituzte: EcoBoost 1.0 l motorra. Zuzeneko injekziodun hiru zilindroko gasolina motorra, banaketa aldakorra eta turbokonpresorea. Kirol-automobilak menperatzeko gai Nürburgring zirkuituan, 5,1 litro bakarrik kontsumituta 100 kilometroan. EcoBoost motorra. Gasolina auto baten potentzia eta diesel baten eraginkortasuna. Informazio gehiago [ford.es](http://ford.es) webgunean.

**12.990€**

[www.fordkondia.com](http://www.fordkondia.com)



[ford.es](http://ford.es)

## FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR

Tel.: 943 207 650

## ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19 IURRETA

Tel.: 944 815 135

## BERRIA



### FORD KA

#### > Auto-Start-Stop sistemarekin

Osagarri ezin hobe bat edukitzeko aukera paregabea.

Edonora eraman nahiko duzu, zure erritmora egokitzen den bakarra delako.

Aprobetxatu, eta eraman ezazu Auto-Start-Stop sistemarekin, aire girotuarekin eta MP3arekin.

**5.990€**



**Oraindik ere ibilgailu erabili bat al duzu buruan?**



# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

## ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500€ hileko.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- MONTEBIDEO: Apartamentua. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela. Erdi berria.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. 1 eta 2 logelakoak. Trastelkuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

### ATXONDO

- Logela 2, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

## LURSAILAK SALGAI

### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

### OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

### EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

### DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

### DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria estreinatzen.

### BERRIZ

- MURGOITON kokatuta dagoen baserria salgai. Nekazal turismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politak.
- EITUA: 5 hektarea dituen baserria. Familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

### ETXEBARRIA

- Iturrieta. 5 hektareako baserria.

### URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

## TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekoak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, logela 2 eta komun 2.
- ANDRA MARI: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna.
- ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komuna.
- ARKOTZA: 4 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela.
- ARTEKALEA: Logela, sukalde-jangela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Ganbara.
- ASTOLA BIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta ganbara.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta ganbara.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta ganbara.
- EZKURDI: 5 logela, sukaldea, egongela, 3 komun eta bainugela. Terraza. Ganbara.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Ganbara.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea.
- JUAN ITZIARRO AUZUNEA: Logela 2, sukaldea, egongela, komuna eta lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua. Ganbara.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- MONTEBIDEO: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- MONTEBIDEO: 5 logela, sukaldea, egongela, 3 komun eta 2 balkoi. Ganbara.
- MURUETATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- MURUETATORRE: 4 logela, sukaldea, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Balkoia. Ganbara.
- OLLERIA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Jantzia. Garaje itxia 2 kotxerentzako eta trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garajea eta trastelekua.

## BESTE ESKAINTZA BATZUK BULEGOAN

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### EZKURDI



- Etxebizitza handia. 174 m2. 5 logela, egongela handia, sukalde handia, 3 komun eta bainugela. Trastelekua. Horma-armairuekin. Aukera paregabe! Lehen 340.000€, orain **295.000€**.

### PLATERUEN PLAZA



- 90 m2. 3 logela, egongela handia tximiniarekin eta komun 2. Garajea eta trastelekua. **290.000€**. Prezio negoziagarria.

### MIKELDI



- 134 m2. 3 logela, egongela, sukalde-jangela eta komun 2. Etxe osoak kanpora ematen du. Lehen 415.000, orain **310.000€**.

### ASKATASUN ETORBIDEA



- Etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komun 2. Garajea eta ganbara. Eremu ona eta ikuspegi ederrak. **255.000€**.

### ERROTARITXUENA



- Estreinatzen. Logela 2, sukaldea esekitokiarekin, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran. **222.000€**.

www.inmoduranguesado.com

## ETXEBIZITZA BERRIAK

- ERROTARITXUENA: Logela bakarrekoak, 140.000€. 2 logelakoak, 235.000€. Garajea aukeran.
- SAN ROKE: Azkeneko solairua. Logela 2 eta komun 2. Terraza. Ganbara eta garajea. 233.000€.
- IURRETA: Logela 2 eta komun 2. Garajea eta ganbara. 211.000€.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- IZURTZA: Logela 2, komuna eta egongela. Ganbara. Berriztua. 114.500€.
- ABADIÑO: Muntzaratz. Logela 2, komun 2 eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. 155.000€.
- ASTEPE: 3 logela, komun 2 eta sukaldea esekitokiarekin. Terraza. Garajea eta trastelekua.
- ANDRA MARI: 105 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea. 155.000€.
- ARAMOTZ: 85 m2. 4 logela, egongela eta sukaldea. Eguzkitsua. 126.000€.
- EZKURDI: 175 m2. 5 logela, 4 komun eta egongela handia. Ganbara.
- MIKELDI: 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Terraza 2. Berogailua. Igogailua. Ganbara. 186.000€.
- ARTEKALEA: 85 m2. Logela 2 eta komuna. Berriztua. 140.000€.
- IURRETA: Uralde. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leiho berriak. Igogailua. Trastelekua. 130.000€.
- IURRETA: Erdialdean. 1. go pisua. 3 logela eta komuna. Bizitzin sartzeko moduan. 99.000€.
- FRANTZISKO IBARRA: 12 urteko etxebizitza. Logela 2, komuna eta sukalde-jangela handia. Ganbara eta garajea. 235.000€.
- MONAGOTORRE: 70 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea. Terraza. Eguzkitsua.
- IURRETA: Dantzari. 80 m2. 3 logela eta egongela. Berogailua eta igogailua. 140.000€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela handia. Garajea. Balkoia. 266.000€.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Trastelekua eta garajea.
- F.J. ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela, egongela eta sukalde despentsarekin. Terraza. 169.000€.
- EZKI: Duplexa. 2 logela. Bizitzin sartzeko moduan. Lorategiarekin. 185.000€.
- EZKURDI: Pisu altua. 4 logela, egongela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- DURANGO: 3 logela eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 95.000€.
- DURANGO: 2 logela, egongela eta sukaldea office-arekin. 138.000€.
- MURUETATORRE: Azkeneko pisua. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra.
- TABIRA: Apartamentua. Erdi berria. Sukalde eta komuna jantziak. Ganbara. 160.000€.
- TABIRA: 3 logela eta 2 komun. Lehenengo mailako materialak. Etxe osoak kanpora ematen du.
- BERRIZ: Cengotitabengoa. 120 m2. 4 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. 216.000€.

## EROSI ALOKAIUAN

- IURRETA: 500€ hilean. 120.000€. Etxebizitza erostea erabakiz gero, ordura arte alokairuaren bidez ordaindutakoa deskontatuko da. 3 logela, egongela handia eta komuna. Jantzia. Berogailua. Berriztua.
- ABADIÑO: 600€ hilean. Estreinatzen. Sukalde jantzia, komuna eta horma-armairuak.
- ARTEKALEA: 100 m2. 3 logela, komun 2, egongela handia eta sukaldea office-arekin. Bizitzin sartzeko moduan. 125.000€. 550€ alokairuan.

www.inmoetxetxo.com



# 0! RENAULT OCASIÓN ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK



## RENAULT CLIO EXPRESSION BERRIA

dCi 90 ZP Urtea: 2013.  
Bermea: 2016ra arte.

**11.500€**



## RENAULT MÉGANE DYNAMIQUE

dCi 110 ZP Urtea: 2013.  
Bermea: 2016ra arte.

**13.800€**

## RENAULT MÉGANE SPORT TOURER EXPRESSION dCi 110 ZP

Urtea: 2013. Bermea: 2016ra arte.

**13.500€**



**PREZIOA  
EKIPAMENDUA  
BERMEA  
HAINBAT AUKERA**

## RENAULT OCASIÓN

Eskaintzak 14/04/30ean bukatuko dira, edo izakinak agortzen direnean (18 Renault Clio, 8 Renault Mégane eta Renault Mégane Sport Tourer 1) Renault Gaurisa, RCI Banque Sucursal en España-rekin gubiernez 4.000 € finantzatuta 24 hilabete baino gubiagoko bigarren eskuko ibilgailuentzako deskontu-promozioaren bidez. Gubiernezko epea 24 hilabete. RECSA eta Gaurisa eskaintzako deskontua. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. Kontsultatu baldintzak kontzesionarioan. Irudian ageri diren modeloak: Clio Dynamique Energy TCe S&S berria, 17"-ko aleaziozko hagunak, pintura metalizatu berezia, eta 1. mailako pertsonalizazio-paketea; Renault Mégane GT-Style Energy TCe 115 S&S, pintura metalizatu berezia (malta urdina); eta Renault Mégane Sport Tourer Privilegio.

Renault gomendatzen du



### GAURISA

ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA

GRAN VIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO

[www.gaurisaautoak.com](http://www.gaurisaautoak.com)

### BILBO BERRI

JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU

[www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)



# AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



**Apirilaren 11n, 19:00etan, Durangoko Kuruzesantu Museoa**

## Khantoria

Antzinako musika jotzen aritzen den Durangoko Khantoria taldearen hitzaldi-kontzertua izango da gaur entzungai, Durangoko Kuruzesantu Museoa. 'Durangoko ganbera musika-zaharra?' izenburua dauka emanaldiak, eta Khantoria taldeak ohi duen eran, zuzeneko musika emanaldia eta jotzen dituen doinuen inguruko azalpenak uztauko ditu.



**Antzerkia**

### :: DURANGO

**Apirilaren 13an, 18:00etan, Kibubu**, San Agustin kulturean.

**Apirilaren 17an, 18:30etan, Ganso&Cia taldearen 'Walkman'. 22:00etan, Marcelo Katzen 'Top, top, top'**, San Agustinen. Topaklown.

**Apirilaren 18an, 20:00etan, Bapatean Zirko taldearen 'Loopas Luthier'. 22:00etan, Cia Puntoclow & Cie Janvier taldearen 'Brigada Dadá'**, San Agustinen. Topaklown.

### :: ZORNOTZA

**Apirilaren 11n, 21:00etan, 'Qfwfq, una historia del universo'**, Zornotza Aretoa.



**Erakusketa**

### :: DURANGO

**Apirilaren 27ra arte, Xabier Soubeleten margolanak**, Arte eta Historia Museoa.

### :: ELORRIO

**Apirilean, egun osoan, Euskal Herriko mapak**, Iturri kultur etxean.



**Kontalaria**

### :: BERRIZ

**Apirilaren 11n, 12:15ean, Munduko ipuin kontalariak**, Kultur Etxean.

### :: DURANGO

**Apirilaren 11n, 19:00etan, Munduko ipuin kontalariak**, Udal Liburutegian.

### :: ELORRIO

**Apirilaren 11n, 22:00etan, Munduko ipuin kontalariak**, Arriolan.



**Bakarrizketa**

### :: BERRIZ

**Apirilaren 12an, 20:00etan, Oihan Vegaren 'Euskararen espektakulue: zergaitik praktikatzen dugu sexua'**, kultur etxean.

### :: DURANGO

**Apirilaren 12an, 21:00etan, Potologuak**, Plateruenean.



**Musika**

### :: DURANGO

**Apirilaren 11n, 19:00etan, Khantoriaren hitzaldi-kontzertua: 'Durangoko ganbera-musika zaharra?'**, Kuruzesantun.



**Tailerra**

### :: DURANGO

**Apirilaren 11n, Birziklape-naz doinua**, musika eskolan. Zilar Astea 2014.

**Apirilaren 12an, 10:00-14:00, Iñigo Aranbarrigaz, 'Abangoardiak euskal literaturan'**, liburutegian. Zilar Astea.

**Apirilaren 12an, 18:00etatik 20:00etara, 'Zure begirada da!' ikastaroa Zalao Fuertesegaz**, gaztetxean. Zilar Astea 2014.

### :: ZORNOTZA

**Maiatzaren 14tik ekainaren 11ra arteko Haur masaje ikastaroaren** izen-ematea, maiatzaren 9ra arte, Zelaietan.



**Zinema**

### :: BERRIZ

**Apirilaren 11n, 18:00etan; eta 13an, 17:00etan, 'La Lego pelikula'**, Kultur Etxean.



**Irteera**

### :: BERRIZ

**Apirilaren 30etik maiatzaren 4ra Donejakue bidera irteera**. Izen-ematea, apirilaren 15era arte, 10:00etatik 20:00etara arte, Berrizburu kiroldegian.

### :: DURANGO

**Apirilaren 26an, 08:00etan, Mugari eguna**, Andra Mariko elizpetik. Izen-ematea: apirilaren 24ra arte, Pinondo Etxean.



**Jaiak**

### :: ELORRIO (Erreka kaleko jaiak)

**Apirilaren 11n, 19:00etatik aurrera, DJ Zirkin. 00:00etan, DJ eta VJ Set**, gaztetxean. **Apirilaren 12an, 17:30ean, pilota partiduak**, pilotalekuan. **19:30ean hasita, Luhartz. 23:00etan, Skontra + The Potes**, gaztetxean. **00:30ean, Summum Art**, Ateneoan. **Apirilaren 13an, merkatua**, plazan. **17:30ean, Besaide taldearen dantzak**, plazan.

### :: OTXANDIO (Udaberri Jaia)

**Apirilaren 12an, 11:00etan, umeentzako jolasak**, plazan. **13:30ean, triki-potea. 15:00etan, elkartasun bazkaria**, Mainondoko kiroldegian. **19:00etan, dantzaldia Izargi taldeagaz. 23:00etan, Mandoilek taldearen kontzertua**, ondoren, **dantzaldia Izargi taldeagaz**.



**Lehiaketa**

### :: ELORRIO

**Maiatzaren 30era arte, Ferixa Nausikoak 2014 kartel lehiaketa**. Informazioa: Iturri kultur etxean.



### :: DURANGO | ZUGAZA 8 apellidos vascos

Zuzendaria: E. Martínez-Lázaro

- barikua 11: 19:30
- zapatua 12: 19:30
- domeka 13: 21:00
- astelehena 14: 18:30

### El gran hotel Budapest

Zuzendaria: Wes Anderson

- barikua 11: 17:00
- zapatua 12: 22:30
- domeka 13: 18:45
- astelehena 14: 21:00
- martitzena 15: 20:00

### Rio 2 3D

- zapatua 12: 17:00
- domeka 13: 16:30

### 2. ARETOA 8 apellidos vascos

- barikua 11: 22:00
- zapatua 12: 17:00
- domeka 13: 16:30/18:45

### Crónicas diplomáticas

Zuzendaria: Bertrand Tavernier

- barikua 11: 19:30
- zapatua 12: 22:30
- domeka 13: 21:00
- astelehena 14: 21:00
- martitzena 15: 20:00

### El gran hotel Budapest

- zapatua 12: 19:30
- astelehena 14: 18:30

### :: ELORRIO | ARRIOLA Philomena

Zuzendaria: Stephen Frears

- zapatua 12: 22:30
- domeka 13: 20:00
- astelehena 14: 20:00

### Las aventuras de Peabody Sherman

Zuzendaria: Rob Minkoff

- domeka 13: 17:00

### :: ZORNOTZA

#### Noe

Zuzendaria: Darren Aronofsky

- zapatua 12: 19:30/22:30
- domeka 13: 20:00
- astelehena 14: 20:15
- martitzena 15: 18:30

#### Rio 2

- zapatua 12: 17:00
- domeka 13: 17:00

**Apirilaren 11n, 21:00etan, Zornotza Aretoa**

## 'Qfwfq, una historia del universo'

Ítalo Calvinoren 'Las cósmicómicas' testuan oinarriturikoa da, gaur gauean, Zornotzan ikusgai egongo den obra. Madrilgo Teatro Meridional taldeak 2.000. urtean estreinatu zuen antzezlan honen lehenengo bertsioa, eta 250 emanaldi egin zituen mundu osoan zehar. Calvinoren ipuinetan oinarrituta, unibertsoaren hasiera kontatzen du obrak, besteak beste, umorea eta poesia baliatuta: materia zelan trinkotu zen argia eta izarrak sortzeko, eta zelan sortu ziren bizitza eta sexua ere kontatzen du, nekazari familia umil baten ahotik.





> **SUDOKUAK**

**1**

			5	4	6		1
	1					3	7
	7						5
4	2		3				
			1		8		2
			2	6			5
			9	8	7	1	
6				1		4	
	3						

**2**

		1		5			2
	7			9			
						1	5
2				8	9		
		5		7	2		3
1	6	3					5
8					3	1	
7			8	5			6
3				4		8	

> **ZORION AGURRAK**

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguztenezko 14:00ak arteko epea



> Eguaztenean, apirilak 9, **Oierrek** 6 urte egin ditu. Zorionak eta mosu haundi bat familian partez, eta ondo pasa merendolan!



> Zorionak **Nataly!** Apirilaren 7an, 4 urte beteko dituzu. Zorionak familiaren eta lagunaren partez. Mosu handi-handi bat!



> Apirilaren 14an etxeko erregeak urteak beteko ditu. Zorionak aita, ama, aittite, amama, osaba eta ixekoren partez!



> **Uxue Artaño Jaiok** domekan 8 urte egingo dauz. Zorionak etxeko danen partez! Eta mosu handi-handi bat Enaran partez. Ondo pasatu domekan!



> Zorionak **Inhar!** Oso ondo pasatu genuen zure 5. urtebetetze egunean, San Andresen. Mosu handi bat etxekoaren partez.



> Zorionak **Leiretxu!** Egun eder ederra pasatu eta asko disfrutatu! Musu handi-handi bat zure klasekidien partez!w



> **Txaberrek** 3 urte bete ditu apirilaren 9an. Zorionak begi eder! Ondo ospatu zure eguna! Mosu handi-handi bat etxekoaren partez!



> Zorionak izeko **Idoia**, Oihan eta Lur, eta familia guztiaren partez. Guk lagunduko dizugu opariak zabaltzen baina zuk ipini merendola! Musu bat!.

> **ESKELAK**



**Goian bego Eugenia Sedrun Otxandategi andrea**

Oromiñon hil zan, 2014ko apirilaren 5ean, 90 urteko zala, Eleizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioak hartuta.



Bere senarra: Sabin Mardaras Aranzeta.

Seme-alabak: Kristina eta Justo Alberdi, Carmelo eta Maria Ibarra, Luis Mari eta Francisca Laguna, Bego eta Patxi Agirreurreta. Ilobak: Asier eta Amaia, Alex eta Oscar, Arkaitz eta Meritzel Plaza eta Garazi, hauen ama Marianjeles Garcia, eta Malen. Neba-ahizpak: Carmelo eta Edurne Ibarra, Milagros eta Martzel Zuazo(+), Serafin eta Mariluz Etxebarria, Begoña eta Jesus Beitia.

Koinatu-koinatak, lobak eta gainontzeko senideak.

**URTEERA MEZA: igandea, hilak 13, eguerdiko HAMABIETAN, lurretako San Migel parrokan.**

Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383



> Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

> **BOTIKAK**

- BARIKUA, 11 - 09:00-09:00**
- **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
  - **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar, 14 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- ZAPATUA, 12 - 09:00-09:00**
- **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
  - **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar, 14 - Zornotza) 09:00-13:30
  - **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
  - **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
  - **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
  - **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
  - **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
  - **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
  - **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
  - **Irigoiñ** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
  - **Jaiok-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
  - **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz) 13:30-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- DOMEKA, 13 - 09:00-09:00**
- **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
  - **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar, 14 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

- Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- ASTELEHENA, 14 - 09:00-09:00**
- **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Eguren, Isabel** (Trañabarren 15 - Abadiño)
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- MARTITZENA, 15 - 09:00-09:00**
- **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- EGUAZTENA, 16 - 09:00-09:00**
- **Irigoiñ** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Lopez de Aretxaga** (Torresolo 4 - Abadiño)
- EGUENA, 17 - 09:00-09:00**
- **Irigoiñ** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Lopez de Aretxaga** (Torresolo 4 - Abadiño)
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

> **TELEFONO INTERESGARRIAK**

- SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 94 681 09 49  
Osakidetza ..... 94 600 72 00  
Ertzaintza ..... 94 466 93 00
- > GARRAIOAK**
- Euskotren ..... 902 54 32 10  
Bizkaibus ..... 94 448 40 80  
Pesa ..... 902 10 12 10  
Continental Auto ..... 945 286 466
- > TAXIAK**
- Abadiño ..... 94 681 44 70  
Matiena ..... 606 459 988  
Durango Geltokia ..... 94 681 10 01  
Elorrio Geltokia ..... 94 682 00 40  
J.L. Uriarte ..... 670 402 002  
I. Estebez ..... 670 678 273  
M. Galeano ..... 670 409 330  
Iurreta ..... 94 620 15 65  
Taxi auzunea ..... 688 618 690  
Berrizko auzo taxia ..... 620 022 800

> **UDALAK**

- Abadiño ..... 94 621 55 30  
Atxondo ..... 94 682 10 09  
Berriz ..... 94 682 45 84  
Durango ..... 94603 00 00  
Elorrio ..... 94 658 27 12  
Garai ..... 94 681 63 93  
Iurreta ..... 94 620 12 00  
Izurtza ..... 94 681 35 48  
Mallabia ..... 943 17 14 61  
Mañaria ..... 94 681 89 98  
Otxandio ..... 945 45 00 20  
Zaldibar ..... 94 682 70 16
- > UDALTZAINGOA**
- Abadiño ..... 94 621 55 33  
Berriz ..... 94 682 40 36  
Durango ..... 94 603 00 00  
Elorrio ..... 94 682 02 18  
Iurreta ..... 94 620 08 88

8° **16°** ZAPATUA ☁

6° **19°** DOMEKA ☀

5° **20°** ASTELEHENA ☁

10° **18°** MARTITZENA ☁

**SUDOKUEN SOLUZIOAK**

**1**

2	9	8	5	8	2	4	1	7	6	9	3
6	9	6	4	9	6	3	5	1	7	7	8
8	5	4	9	6	2	2	3	5	1	7	7
1	4	6	3	2	9	8	7	5	1	7	5
9	8	5	6	1	7	2	4	3	1	7	5
1	7	5	4	8	9	6	5	1	7	7	5
2	3	7	5	4	8	9	6	5	1	7	5
4	2	3	3	7	8	7	6	1	5	9	6
5	7	8	2	9	1	9	1	6	3	4	4
6	9	1	4	5	3	7	2	8	8	2	8

**2**

1	3	8	4	2	8	6	9	3	7	9	1
6	7	5	3	4	8	2	2	2	2	2	2
2	5	4	9	8	7	1	6	8	5	2	8
8	1	3	2	9	6	7	5	4	4	4	4
7	6	5	1	4	9	8	8	8	8	8	8
4	2	6	3	7	5	9	1	8	8	8	8
9	6	7	8	3	1	2	4	5	5	5	5
5	4	1	6	2	8	3	7	8	3	7	8
3	8	2	7	5	4	6	9	1	1	1	1



## “Museoa ikusi nahi duenak ateak zabal-zabalik ditu”

Trabaku Beheko tabernan dagoen museoaren sortzaile eta jabea da Enrique Mugarza

**> MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
 Enrique Mugarza mallabitarra orain dela urte batzuk museo zabaldu zuen etxeko garaje: Mallabiko Trabaku Beheko taberna garaje. Bertara doan edozeinek, antzinako motorrak, aparailuak eta argazkiak aurkitu ditzake, besteak beste. Astegun zein asteburuetan bere altxorak edozeini erakusteko prest dago Mugarza.

**Nola hasi zinen museo sortzen?**  
 Aita arotza nuen, baserriko tresnak egiten zituen, eta gaztetatik hasi nintzen berari laguntzen. Ikastea ez zitzaidan asko gustatzen, eta berari laguntzen orduak eta orduak ematen nituen. Orduan, tresna haiek gorde behar nituela otu zitzaidan, eta horrela hasi nintzen, apurka-apurka museotxo hau sortu arte. Hasieran, etxekoekin eztabaidak edukitzen nituen, anaiarekin batez ere. Berak dena sutara edo txatartegira botatzen zuen, eta nik, berriz, batu eta gorde. Horielako ondorior, makinatxo bat borrokalde izaten genituen.

**Baina zer dela-eta antzinako gauzak gordezko grina hori?**  
 Nire asmoa beti izan da gazteek jakitea lehenagokoek lana nola egiten zuten. Orain dela urte batzuk dena tresna bidez



egiten zen, eta gazte askok eta askok gaur egungo aparailuen berri bakarrik dute. Hemen aurki dezakezuen edozein objektu istorio bat dauka. Nahiz eta askorentzat orain dela urte batzuk horiek aparailu zaharrak izan, gaur egun, balio handia dute. Ordukoek ez zioten ezeri garrantzirik ematen, ez ziren konturatzen botatzen ari ziren horiek historiaren zati zirela.

**Noiztik duzu proiektua esku artean?**

Orain dela hogeitau bat urte hasiko nintzen gauzak apurka-apurka txukun jartzen. Nik urte luzez Lambretta motorrak konpontzen egin nuen lan. Bertan lanean nenbilela, motor zaharrak erosi eta konpontzen hasi nintzen, gazteei erakusteko. Hasieran motorrak, eta lehen aipatutako aitaren tresnak bakarrik nituen, orain, berriz, beste hainbat gauza ere baditut.

**Zer aurkitu dezakegu museoan?**

Denetarik dago: motorrak, irratiak, argazki kamerak, antzinako mediku baten poltsa bat eta okulista baten makina, berbarako. Hemen dauden objektu guztiak erositakoak dira, besterik ezean ardo botila batzuen edo pastelen truke. Izan ere, ez dut nahi norbait etorri eta objekturen bat berea dela esaterik. Beraz, zerbait ordaintzea gustatzen zait, horrela

inork ezingo didalako konturik hartu.

**Apezpiku baten sotana ere baduzu antza denez.**

Bai, hori ere badaukagu, Costa Ricako apezpikuaren sotana da. Zengotitabengoa delako batena. Herriko baserri batean botatzeko zegoen, lurrian utzita. Orduan, etxeko andreari galdetu nion sotanagaz zer egiteko asmoa zuen, eta erretzeko zela erantzun zidan. Beraz, nahi izanez gero etxera eramateko esan, eta ordutik hona bertan dut. Apezpikuaren sotana gainera, bidezainaren txapela eta poltsa ere baditut.

**Denbora asko eskaintzen diozu museoari?**

Beti dago zerbait egiteko, baina ez denean bestea konpontzen eta garbitzen. Asteburu eta jaiegun askotan, berriz, ezertarako astirik gabe egoten naiz, arratsalde osoak bertan sartuta eman ditzaket. Egun askotan pertsona bat sartzen zaizu, eta, ondoren, beste bat. Horrela, arratsalde osoa batari eta besteari gauzak erakusten.

**Euskal txirrindularitzaren astea den honetan, gogora etorriko zaizkizu Espainiako Vueltan bizitakoak, ezta?**

Bai, 12 urtez aritu nintzen Espainiako txirrindularitza itzulian motorrarekin txirrindulariei laguntza ematen. Horra ere Lambrettan lan egiten nuelako joan nintzen. Nire lana txirrindularien atzean joatea zen, norbaitek ihes egiten bazuen, horren berri zuzendariei eta txirrindulariei emateko. Horrez gain, karabanan zihozten beste Lambrettek matxuraren bat izanez gero, horiek konpontzea ere bazen nire lana.

**LAUHORTZA**

**JON ARTZA**

Soziologoa



**Gure esku dago**

Goiz hartan, kafea hartzen genbiltzala, pozik sumatu nuen lankidea. Bilbon bizi den gipuzkoarrak Gure Esku Dago ekimenean parte hartzen ari zela esan zidan. Argudiatu zidan, Katalunian bezala, hemen ere alderdiekiko distantzia jarri, eta gizarte mugimenduak izan behar direla aldarrikapenaren abiapuntu. Alderdiak, eguneroko kudeaketan murgilduta daudela, eta, maiz, tankera honetako ekimenak sustatzen dituztenean, kontraesanetan erortzen direla. Nik adostasun ezkorra adierazi nion. Bi herrialdeak egoera desberdinean gaudela, eta hango tradizio politikoa ere diferentea dela. Nolabait esateko, hango alderdiak profesionalagoak dira. Horretaz gain, mugimendu sozialetatik bereizten dituen marra, hemen baino nabarmen lodiagoa dela.

Ekimena apirilaren 30ean aurkezten dela eta gonbita egin didate. Baietz erantzun dut

Durangon zer edo zertan ari garen ere galdetu zidan. Herri erdian bizi banaiz ere, herriko bizitza soziala periferiatik jarraitzen dudala adierazi nion. Hala ere, deiren bat izango nuela.

Jaso dut deia. Ekimena apirilaren 30ean aurkezten dela eta hara joateko gonbita egin didate. Baietz erantzun dut. Une batez, baiezkokoak azkarregi ematen ditugula pentsatu dut, ekimen edo ekitaldi konkretu batek zertarako balio lezakeen sakon aztertu gabe. Baina, ongi pentsatuz gero, uste dut hori dela gure indarrik handiena, termino ekonomikoetan balio erantsia esaten dena: euskal kultura eta nortasunaren alde egiten den borondate hutszeko lana, ematen diren ondo pentsatu gabeko baiezkokoak.

**APIRILA**  
**Zuk ere baduzu zer esan**

Martxoan SAREAREN inguruan hausnartu ondoren, oraingoan kudeaketaz hitz egitea tokatzen zaigu

**12 Plateruena KUDEATUZ**  
 larunbata 10:00-12:00

Harremanak Elkarlana Komunikazioa  
 Espazioa Lanketa Identitatea Elkartegintza

parte hartuz  
 PLATERUENA

Zilarberritzen, Durangon kultura bizitzeko.